# BARREN

1996ko abenduaren 20a
IV. urtea - **177. zkia.**
ELGOIBARKO ASTEKARIA

ZENBAT BURU
**Alberto Iriondo**

ERREPORTAIA
**Elgoibar etorkizunari begira**

UDALETXETIK
**Urteko balorazioa**

BERBETAN
**Lucia Casquero**

KULTURA
**650. urteurreneko diaporama**




# Etorkizunari begira

*"Gauza ona ere kaltegarria da gehiegizkoa denean"*

Elgoibarko Udalak Jai zoriontsuak
opa dizkizue herritar guztioi

Urte Zaharra
ondo bukatu
eta Berria
hobeto hasi




ELGOIBARKO UDALA

# LASA
## JATETXEA



**- Gaur egun, LASA jate-txea Ozaeta Jauregian dago. Noiztik?**
- Orain dela bi urtetik. Gure kontura jartzeko aukera izan genuen momentutik.

**- Zeintzuk dira jatetxearen ezaugarriak?**
- XVI. mendeko berritutako jauregia da, argiztatze eta dekorazio modernistarekin.



**- Ezkontzak eta komunioak ospatzeko leku aproposa da. Zenbat lagunentzako lekua du jantokiak?**
- Neguan 180 pertsona sar-tzen dira eta udan, estalkia jarrita, 240 lagun ere sar daitezke.



**- Ezkontza bateko menu tipikoa...**
- Terrazan cock-

Zorionak
eta

**Ozaeta Jauregia - Tel. (943) 76 10 55 - Faxa (943) 76 20 29**
**BERGARA**

# ELGOIBARKO UDAL KIROL PATRONATUA

# Ezagutzen










Foto Gabirondo

# Egin zaitez

Olaizaga kiroldegian ☎ 74 44 15

# Olentzeroren

**BIZARRA KENTZEKO TRESNERIA ETA KOLONIA**
(7.330 pta.) **YUDEGO lurrindegia**



**FRUTA-ONTZIA**
(5.400 pta.)
**BAZAR DESDE CIEN**



**TOAILAK** (5.500 pta.)
**KARKIZANO mertzeria**



**KAFETERA**
(26.000 pta.) **XIGORTZE**



**PRAKA, ALKANDORA ETA GORBATA**
(17.750 pta.)
**JON konfekzioak**



**KUTXA** (3.995 pta.)
**CLASSY paperdenda**



**FORRO POLARRA**
(20.980 pta.)
**IRIONDO kirolak**



**ZILARREZKO ERLOJUA**
(2..565 pta.) **ANE dekorazioa**



**JERTSEA** (8.975 pta.)
**GARATE erropa denda**



**URETARAKO BOTAK**
(2.900 pta.)
**PINOTXO zapatadenda**



**PANPINA** (3.000 pta.)
**TIK-TAK haur erropa denda**



**LANPARA**
(6.120 pta.)
**CASCANUECES eskulan-denda**



**BAROMETROA**
(17.985 pta.)
**IKUS optika**



**BIDEOA**
(29.900 pta.)
**BIRE elektragailuak**



**ZIFRAK ETA LETRAK JOLASA** (7.390 pta.)
**GOROSTIZA liburudenda**




**ZAPATILA NORDIKOAK**
(4.500 pta.)
**OSORO zapatadenda**



**KANTZONTZILOAK**
(3.700 pta.)
**ZUBIAURRE mertzeria**



**DELTA BOSCH LIJADORA**
(13.855 pta.)
**ETXABE ferreteria**




**ALFONBRA** (3.500 pta.)
**IRIONDO altzari-denda**



**BIZIKLETA**
(16.300 pta.)
**ASTIGARRAGA garajea**



# zakua



**JERTSEA ETA PRAKAK**
(12.400 pta.) MASUMI´S erropadenda



**EGUZKITARAKO BETAURREKOAK**
(13.950 pta.) UZURI optika




**ERREAL, ATHLETIC EDO EUSKADIKO SELEKZIOKO EKIPAZIOA** (7.890 pta.)
MUXI kirolak



**TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITONEN BIDEOA**
(2.300 pta.)
PITXINTXU



**ETXERAKO ZAPATILAK**
(3.595 pta.)
ABARKA zapatadenda



**AGENDA DIGITALA**
(17.300 pta.)
CALCU MEKANO paperdenda



**KAMISOIA ETA BATA**
(12.675 pta.) ECENARRO mertzeria



**PATINAK** (9.750 pta.)
ASTIGARRAGA kirol denda



**ARGAZKIENTZAKO MARKOAK** (650 pta.)
OSTARKU argazki denda



**ERLOJUA**
(135.000 pta.)
ARANBURU bitxidenda



**KAZADORA** (21.990 pta.)
LETE jantzidenda




**BARRUKO ERROPA**
(6.460 pta.) SKANDALO



# ZELETA
## Barazkiak

JATORRIZKO KALITATEA

EUSKAL BASERRI

GERNIKAKO PIPERRA KALITATEA

*Gabon Zoriontsuak eta Urte Berri On!*



Egunero batu eta ontziratzen dugu.

Erabateko kontrola produkzio eta hautaketan.

0,0 tratamendua.

BETIKO DENDETAN AURKITUKO GAITUZU.

ZELETA BASERRIA - San Migel Auzoa - ELGOIBAR



# Zubia jatetxea

*Berezitasunak: Arraina eta haragia erreta eta bildotsa*

*Zorionak!*

- EZKONTZAK
- BATAIOAK
- JAUNARTZEAK
- DESPEDIDAK
- EGUNEROKO MENUAK
- BILERETARAKO MENU BEREZIAK
- ETAB.



# Merkatu Plaza



*Uste duzuna baino askoz gehiago!*

## Gabon Zoriontsuak herritar guztioi!

**AMAIA frutadenda**



**INAKI eta AMPARO urdaitegia**



**DOMINGUEZ arrandegia**




**MARI harategi-urdaitegia**



**MARI ANGELES frutadenda**



**FRAILE harategia**



**OSORO urdaitegia**



**PEREZ zapatadenda**



**TXILLARRE barazkiak**



**TXIRIBOGA taberna**



**ZABALA frutadenda**



**ZABALA urdaitegia**



GARAY
HARATEGIA
URDAITEGIA

San Frantzisko, 9 - Tel. 74 13 92
20870 ELGOIBAR



Gure dendan erosteagatik **GASOLINA TXARTELAK** eskuratuko dituzu.

Gure dendan kalitate gorena duen haragia bakarrik saltzen dugu. **EUSKAL LABELA** duen haragia.

Zorionak eta

TXANKAKUA Merkatari Elkarteko partaide garenez, Gabon kanpaina dela eta, **KANARIAR IRLETARA BIDAIA**



Beti bezeroaren erosotasunari begira, hemendik aurrera zure erosketak **TXARTELA**rekin ordain ditzakezu.



**BERUNIK GABEKO GASOLINA • MICHELIN AGENTZIA • GURPIL NEURKETA**

# REZOLA GASOLINDEGIA

*Gabon Zoriontsuak herritar guztioi!*




KAi
250 pertsonarentzako lekua
Betiko sukaldea eta giro jatorra
Eguneroko eta astebukaerako menuak eta
Zorionak!
Madalena auzoa, 4 - Tel. 60 33 44 / 60 41 34 -


Muruamendiaraz
gozotegiak jai gozo-gozoak opa dizkizue
herritar guztioi! Urte Berri On!



ALBERTO IRIONDO

# Gabonak eta opariak

Eguberriak gainean ditugu. Oparitzeko baliagarria den edozein erosgairen iragarkiak gero eta ugariagoak dira, denok aberastuko gaituen loteria agortzen doa eta, konturatzerako, erakustoki edo eskaparateak ezohiko kolorez apaindu dituzte.

Ezkutuko ametsak gure begietara errealitate eginez, kaleetako paseoak politago bihurtzen dira. Jendea harantz eta honantz. Argiak itzali eta piztu. Guztia ederragoa da. Eguberrietan maitasunaren baloreak diruarena gainditu egiten du eta irudimenak arazoak giltzaperatu ohi dizkigu. Ez dadila ezer falta behin-behineko magia honetan! Gizakoiagoak ere bihurtzen gara eta gertukoenekin behintzat ez haserretzeko esfortzu berezi bat egiten saiatzen gara. Pertsona txarra izanez gero ezin liteke zoriontsu izan.

Eguberrietako zuhaitza, turroia, txanpaina, malko artean bukatzen ditugun filme hunkigarriak eta Olentzeroren oparia gero eta ezinbestekoagoak zaizkigu eta gero eta dosi handiagoetan behar ditugu egunerokotasun itogarritik urrundu ahal izateko.

Baina Olentzeroren oparia aipatu dudanez, hitz batzuk esan nahi nituzke oparien mundu bitxi honi buruz. Denok dakigu opariak ez duela balio materialik, zerbait sinbolikoa baizik: hitzik gabeko hizkuntza dela. Pertsona bati opari bat egiteak nolabaiteko hurbiltze bero bat adierazten du, edo neuk behintzat horixe pentsatu izan dut beti.

Pasa den astean, hain zuzen ere, honako hau entzun nion ezagun bati: lagun bati opari bat egitean, eraso egiten diogula eta eraso hori, lagun horrek guri opari bat eginez baino ezin daitekeela konpon. Opari bat egingo dizutela aurrez jakitea izugarrizko mehatxua dela eta eragiten duen ikara ez dela makala izaten, gero ordainetan emateko beste opariren bat izan ezean. Azken finean, opari bat jaso eta beste opari baten bidez erantzuten ez baduzu, edo jasotako eta egindako oparien artean nolabaiteko parekotasunik ez badago, mixerabletzat hartuko zaituztela eta ez dakit zer gehiago.

> “Gustukoenekin behintzat ez haserretzeko esfortzu berezia egiten saiatzen gara”

Nik ez dut uste nire ezagun honek arrazoia zuenik eta halaxe esan nion. Lehen esan dudan bezala, opariak balio sinbolikoa du eta ez dut uste norbaiti opari bat egiteak eraso bat suposatzen duenik. Alderantziz, zerbait oparitzea beste pertsona horrenganako hurbiltze bezala hartzen badugu, ekintza hori, geuk erabaki dugulako egiten dugu, eta ez ordainetan beste opari bat jasotzeko.

Denok ez gara berdinak ordea, eta bakoitzak atera ditzala bere konklusioak.

## H A R R I G O R R I G O I K O E R R O T A B E R R I T A R R A K



BARREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 74 41 12
Publizitatea:
☎ 74 37 04
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA Ainhoa Lodoso
ERREDAKZIO KONTSEILUA Andres Alberdi
KAZETARIAK Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
PUBLIZITATEA Myriam Aldazabal
MAKETATZAILEA Maite Rementeria
ADMINISTRAZIOA Amaia Martin
M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez
KOLABORATZAILEAK Irati Agirreazaldegi, Xabier Ansola, Nekane Aranburu, Pello Arrieta, Juan Mari Elustondo, Ina Garagarza, Ane Goikoetxea, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Maite Iriondo, Edu Iriondo, Alberto Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, J. Mari Mendizabal, Milagros Oiarzabal, Benantzio Otaegi,Leire Urkidi, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta, Deñe Zabalo eta Lucia Zubiaurre
BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA Gertu koop. E
TIRADA 3.800 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92
ISSN 1133-021X

**BARRENek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.**

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

kutxa fundazioa
fundación kutxa

DANOBAT
MAQUINAS HERRAMIENTA



# Joan berri zaigun lagunaren oroimenez

Neguko gauek berekin dute
partitzearen zantzua.
Biziz nekatu diradenei
eramaten deskantsua.
Nolaz erauzi ahal izan du
hain zuhaitz lerden zaintsua?
Hark eusten zuen lur saila utziz
umezurtz eta antzua.

Hara neguko ilun elkorra
argi zurbilez beltzua.
Hara haizea zuhaitz artetik
lerratzearen xistua.
Hara harrien mutua, hara...
...udaberri zapuztua...
Hara esperantzen erresumara
luzatu nahi den eskua.

Eremu trixte laiotzetatik
ihesi hoan mirua.
Hiren hegoen menean daukak
hodei xurien zerua.
Hegalkadaren erasoetan
bildurik orain mundua.
Pausatzen haizen abarreraino,
gure adio mindua.

Lagun izan gaituzu bizitzan, Alex. Lagun geroan ere. Lagun izan zaitugunok ez zaitugu sekula ahaztuko.
**Zure lagunek**

# 6NEMEN9kook Gazte Asanbladari

Zer esan gaztetxeaz, 6NEMEN9kook
kontzertu hainbatetan gozatzen
kontzertu zenbaitzutan partaide
kontzertu berrien bila
gaztetxez gaztetxe gabiltzanean
Elgoibartik ez hain urruti.

Zer esan gaztetxeaz orain
herria, taberna eta bertako musika ere
kanpotarrek
paradisuren batera omen datozenek
paradisu honetan lasai dirautenek
eta agian, asmo izkuturen batek
OKUPAtu dizkigutenean
inozo armatu batzuk baliatu pakeaz
kaletik ez hain urruti.

Zer esan gaztetxe haretaz
hartatik ezagutu apurraz
han ezagutu guztiaz
burutu ez zen ametsaz
egun beltz haretan bota zigutenaz
oroimenean ez hain urruti.

Zer esan gaztetxe horretaz
elkarrizketa sutuetan pizten denaz
zure, haren, nire nahieran
zure, haren eta nire gustuko ere egingo dugunaz
gaubela ero eta ez hain eroetan
somatzen dugunaz eskuotatik ihesi
baina
eskuotatik ez hain urruti.

Zer esan, zer esan, zer esan
esan beharrekoak esanda daudenean
egion beharrekoak egiteke.
Infernutik buelta bat egiteko garaia da,
gure eskuokin paradisu puska bat hartzekoa.
Piztu dagigun metxa eta sutu, azkenaldian
maskarilatik arnasean dihardduen herri
mortu hau.
**6NEMEN9**

# Gaztetxea beharrezkoa

Beharrezkoa ikusten dugu Elgoibarren ondo funtzionatuko lukeen Gaztexea sortzea, gazte guztien bilgune izango dena eta gazteen artean euskal musika eta euskal kultura bultzatzen lagun dezakeena. Uste dugu Udalak borondaterik onenarekin aztertu beharko lukeela gaia, eta gazteei eta euskal kulturari egin diezaiokeen aportazio positiboa kontuan hartu beharko lukeela.
**Elgoibarko Trikiti Eskola**

# EAJren erantzuna

Elgoibarko PNV/EAJko Uri Buru Batzarrak, Pello Mendizabalek HBko zinegotzien izenean, prentsaurrekoan isuritako salaketak arbuiatzen ditu eta ondorioz, aipatutako zinegotzien aurkako salaketa jarri du: Pello Mendizabal, Javi Agirre eta Juan Carlos Marcosen aurka, hain zuzen ere.

Era berean, beren burua Euskl Herriaren ordezkaritzat hartu duten pertsonaia hauen portaera gaizto eta rduragbea salatu nahi dugu.

HBko zinegotziek udal batzordeetan inolako jarrerarik ez hartzea salatu behar dugu, esaneko portaera bat mantenduz eta dena Udal BAtzarrerako utziz, beren ekintzak argitaratzeko komunikabideen presentzia aprobetxatzen dutelarik.

Gainontzeko Udal Batzordearen lana desprestijiatzea eta Udalaren funtzionamendu normala deuseztea helburu duten jokaera "paranoikoak", eta EAJ/PNVren eta honen ordezkarien aurkako finkapen gaixoti bat erakutsiz.

Baina HBko zinegotzien gezurrek ez dute lortuko guk geure ahaleginean amore ematerik. Guk geure herriaren onerako lan egiten jarraituko dugu, betiko diskrezio eta erantzukinaz, protagonismoa, titular ikusgarriek daramatzaten gezurren bidez, Elgoibarko herria nahastu nahi duten arduragabe hauei utziz.

**EAJ/PNVko Uri Buru Batzarra**

1997-XII-20

## GALDERAK

◆ **“Zelan jakin dezakegu herriko jaiak prestatzeko batzarrak noiz izaten diren?”**

Udal Kultur Teknikariak esan digunez, San Antonetan ez da batzarrik izaten. Kultura Batzordeak prestatzen ditu jaiak baina edozeinek dauka ideiak edo proposamenak eskaintzeko aukera. Gainera, proposamen hauek onartu egiten dira gehienetan.

Trinitateetan eta San Bartolomeetan, berriz, batzorde batek prestatzen ditu jaiak. Deialdia elkarte guztiei eta herritarrei (prentsaren bidez) luzatzen zaie eta nahi duten guztiek parte har dezakete jai batzordean. Alabaina, ez omen da jende gehiegi hurreratzen aipatu batzordera.

## TXALOAK

Mendizale batek deitu digu Morkaiko M.E. txalotzeko. Benetan polita iruditzen zaio urtero jaiotza Morkaikon ipintzea eta aurrerantzean ere beste horrenbeste egiteko eskaria luzatu nahi die.

## KEXAK



◆Mutiko bat etorri zaigu esanez, Arregitorren dagoen parkean duela egun batzuek haizeak arbola bat bota zuela eta oraindik ere han dagoela. “Ez al du inor handik kentzeko asmorik?”

# BAI, ESAN?





Gillermo Garate
Alkatea

Aste honetan herriko **alkateari** deitu diogu. Elgoibarrek 650 URTE betetzenn dituela aprobetxatuz, bizpahiru galdera egin dizkiogu **Gillermo Garateri.**

**– Zer esanahi dauka elgoibartarrontzat urteurren honek?**

- Nahiz eta gora-behera asko izan, hemen gaude 650. urteurrena ospatzen; sute, uholde eta gerrateak ere izan ditugu baina hemen gaude beste urte askoz jarraitzeko borondatearekin.

**– Elgoibarko historiari begiratuz gero, zer azpimarratuko zenuke?**

- Gora-behera guztiak gainditzeko borondatea. Burdinolen krisia izan zenean bizimodua aldatu zen. Hortik San Pedro fabrika etorri zen, Estarta ondoren eta gaur egun, Erreminta-Makina da errealitatea.

**– Nola ikusten duzu Elgoibar etorkizunean?**

- Etorkizun ona ikusten dut. Bizitzaren kalitatea hobetu egingo da, baita ingurugiroa ere eta Elgoibarrek berriz ere burdinaren inguruan izango du bere ogibidea.

13.000 biztanle dituen herria kirol eta gizarte egituraz ondo osatua dago. Minutu gutxitan edozein lekura joateko aukera ematen diguten errepideen azpiegitura daukagu, lasaitasunerako, aisialdirako eta iragana gogoratzeko lekuak mantentzen dira. Puntako industria hor dago, baita lehen mailako hezkuntza eta aisialdirako izateaz gain, lana ematen duen hirugarren sektorea ere bai, Elgoibarren aurkezpenerako balio dutenak.



*I. URTEURRENA*

*1995eko abenduaren 24an, 81 urte zituela hil zen **MARIA ZABARTE BEITIA**ren oroimenez URTEMEZA izango da asteazkenean, hilak 25, eguerdiko 12etan Mendaroko Azpilgoetako elizan. Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



# Nola ikusten duzu Elgoibarko etorkizuna?

*650 urte dira Elgoibar herria sortu zela. Denbora asko batzuentzat. Gutxi mundua sortu zela milioika urte direla kontuan izaten badugu. Gure historian zehar gauzak asko aldatu dira, arlo guztietan ,eta aldaketa horiek egin dute Elgoibar den bezalakoa izatea. Bere gauza txar eta onekin. Gaurkoan aurrera begira jarri gara, eta urte berria atea joka izanik, gu geu ere nolabaiteko aurrikuspenak egitera ausartu gara. Pertsona konkretuengana jo dugu eta horietako bakoitzari zera eskatu diegu, Elgoibar 20 urte barru nola ikusten duten esateko.*

## Euskara



Euskerian ezagutza oso ondo ikusten dot. 20 urte barru oso elgoibartar gutxi egongo da euskeria jakingo ez dabana. Euskaldunak eta ia-euskaldunak batuz gero, %90era ailegatuko gara.

Halere, badakat euskerian kalidadiari buruzko kezkia. Euskeria jakin bai baina ez dakit kalidadia (etorrixa, hiztegixa, esaldixen joskerak, ...) asko xamar bajatzen ari ez ete dan. Bestalde, Elgoibarko berbetian etorkizuna ere ilun ikusten dot.

Euskerian erabilerak ere gora ingo dabala argi daukat, baina ez dot uste ezagutzak beste egingo dabanik. 20 urte barru Elgoibarren euskara hutsean bizitzeko aukera erreala egon laikela uste dot. Laino beltzak ere ikusten ditxut inguru batzuetan: lan munduan, osasun munduan...

Euskeriarekiko motibaziua daukagu. Euskerian alde ia danok gaude baina horrekin ez da nahikua. Euskerian aldeko sentsibilizazioa indar-tzen asmatzen badogu, 20 urte barru ez da hainbeste berba egingo euskeriari buruz. Hau izango da seinalerik onena.

**Imanol Larrañaga**
Elgoibarko Izarrako dinamizatzailea

## Ekonomia

Schumpeter-en hitzetan, "bilakaera prozesu guztiek, hurrengo bilakaerarako konsizioak ezartzen ditu". Atzera begira dezagun. Elgoibarko garapen demografikoak kezkatzen nau. Biztanlegoa haztea positiboa izango li-tzateke.

Elgoibarko industriak azken urteotan asko sufritu du globalizaio eta politika makroekonomikoengatik (kanbio tipoa eta interes tipoa). Izaera finantzieroa ekonomia errealaren gainetik egon da. Etorkizuna desberdina izango da. Industria ez da tamainaz haziko. Zerbitzu aurreratuetan dago etorkizuna. Erreminta makinako enpresak, zentru teknologikoak (Ideko, Fatronik) eta informazio zentroak elkarlanean aritu behar dira erantsitako balio altuko zerbitzuetan iharduerak sortu eta herrialderik exingenteenetara esportatu ahal izateko.



Hurbileko zerbitzuak (Etxez etxeko laguntza, ingurugiroaren babeserako zerbitzuak...) ugaritu egingo dira biztanlegoa zahartzen ari delako, eta oso kaltetua dagoen ingurugiroaren oreka berreraiki egin behar delako. Hau guztia hobetu egin daiteke inbertsio handiak egiten badira atzerritik etorritako laguntzaz eta instituzioen babesarekin.

Ni neu baikor zentzuduna naiz. Hori bai, etorkizuna irabazi egin behar da.

**Paco Egea**
EAEko ekonomia lehendakariordea

## Kirola

20 urte barru hirugarren adineko pertsona osasuntsuen lehen belaunaldia izango dugu. Hirugarren adinekoen bizi kalitatea hobetu egingo da, kirola praktikatuko dute, gaztetan kirola egin duten zaharrak izango direlako. Hori dela eta, kirol instalakuntzak eta kirola egiteko era hirugarren adinera egokitu beharko da.

Bigarrenik, gaur egun kirolak duen konpetizio izaera galdu egingo da. Kirola aisialdi garaira hedatu eta osasun eta hijiene izaera hartuko du.

Azkenik, kirola eskualde mailan landuko da. Kontuan izan behar da gero eta haur gutxiago jaiotzen dela. Horregatik, eskolarteko jolasak, esaterako, eskualde mailan egin beharko dira, herri ezberdinen artean. Honi lotuta, kirol instalakuntzek ere amankomunean funtzionatuko dute. Gaur egun herritar eta kanpotarrentzat dauden kuota ezberdinak desagertu egingo dira. Etorkizunean, abonoak sortuko dira eta horiei esker herri desberdinetako instalakuntzak erabiltzeko aukera izango da.



**Ramón Mujika**
Udal Kirol Patronatuko Zuzendaria

## Drogak



Drogak gizadia bezain anbiguoak direla kontuan izanik, erabilera eta gehiegizko erabilerak, bai Elgoibarren, bai eta mundu osoan ere, jarraitu egingo duela esan daiteke, drogek urteetan zehar iraungo dute. Aldatu egingo dira, berriak sortuko dira zaharrak ordezkatuz, baina aldaketa sozial, ekonomiko eta kulturalak irauten duten heinean, drogen gehiegizko erabilera ere existituko da.

Drogekin bizitzen jakin beharko genuke, drogak erabiliz baina gehiegizko erabilpenera sekula iritsi gabe.

**Paki Lucha**
HIESaren batzordekoa

## Emakumea

Haizea taldeak garbi du emakumea emakume baino lehenago pertsona dela, gizarte honetako parte garrantzitsua garela eta baldintza berdinetan parte hartu behar dugula. Gero eta emakume gehiagok ikasketak ditu, lan mundura iristeko aukera



gehiago izango ditu eta lanak independentzia dakar eta botere gehiago gizarteko erabaki garrantzitsuetan parte hartzeko: politika, kultura, lan mundua... Emakumeak e-txetik kanpo lan egiteak rol aldaketak halabeharrez ekarriko ditu, heziketa desberdina izango dute etorkizuneko semealabek. Gauzak aldatzen hasi dira. Kontzientzia gero eta hedatuagoa dago, bai emakume bai gizonen artean. Etorkizuna baikorra da emakumearentzat.

**M. Jesus Lazkano**
Haizea emakume taldekoa

## Eliza

Hemendik 20 urtera San Bartolome parrokiak loturа estuak izanen ditu inguruko beste parrokiekin. Parrokiako mugei ez zaie gaur bezalako garrantzirik emango. Parrokien arteko lana areagotu egingo da. Kristau sekularren eskuetan egongo dira parrokiako ardura nagusiak eta antolaketa. Guraso kristauek aparteko zeregina izango dute fede heziketan.

Agian, hemendik 20 urtera Euskal Herri baketsuago eta adiskidetuago bat ezagutuko da. Langabetuei, gazte baztertuei, adineko pertsonei, eskale eta deserrotuei lagun-tzeko aukera



gehiago izango da. Hirugarren munduarekiko solidaritatea nabarmenago egingo da. Bestalde, Elgoibarko kristauek sinkretista edo “New Age” giroko erlijiotasunaren zabaltzeari eta sekten eragin indartsuari aurre egin beharko die. Eta Parrokiako obrak bukatuta egongo dira orduko.

**Benantzio Otaegi**
Elgoibarko Parrokoa

## Baserria

Baserri munduari hiru bide desberdin topatzen dizkiot. Produkzio gehienak kalitatezkoak izango dira eta produktoreek profesionalizazio maila handia izango dute. Baserri munduan biziko direnak egongo dira eta hauek lurraldearen gestioarekin zerikusi zuzena izango dute. Gero eta gehiago gure errekurtsoen ordenazioa zorrotzagoa da eta honek lurraren erabilpen zehatzak ekarriko dizkigu.

Hirugarren bide bat ere topa dezakegu, berrikuntzarekin zerikusia duena, turismoa, aisialdia edo produktuen eraldaketa duen edozein ekintza.

Argi dago, baserri munduak gaur egun bezain garrantzitsu izaten jarraituko duela, baserritarrak baitira gure natur-guneak zaintzen dituztenak eta gure eguneroko jakiak ekoizten dituztenak.

**Asier Albizu**
DEBEMENeko gerentea






ESoZiA JATETXEA

*Ospakizun berezietarako toki aproposena.*
*Zugandik oso gertu!*




Esozia auzoa z/g - ☎ 75 10 01 - SORALUZE

# E R R E P O R T A I A

## Hezkuntza - Hezkuntza - Hezkuntza - Hezkuntza -



Etorkizunari, zorionez berez duen misterioa eta ezustekotasunaren gandua kendu gabe, gaur eguneko proiektuek beraiek eskaintzen dizkigute geroaren ildo nagusiak, haziak loreak eta fruituak beregan dituen bezalaxe. Duela hamar urte inguru aurrikusten genituen baldintzak bete diren bezala beteko dira hamar urteren barruan, orain bideratzen ditugunak ere.

Zerbitzu publikoa, kalitatezkoa eta euskalduna, hiruki beraren hiru aurpegiak izango dira Elgoibarko irakaskun-tzan, orain egiten ari garen lanaren fruitu gisa.

16 urtera bitarte, gizarte oinarririk gabeko lehia ikusten dut, Elgoibarko populazioari ez baitagozkio hiru eskola. 16 urtetik gora, ordea, herri gutxik izango dute guk bezain eskaintza zabal eta aberatsa, Elgoibar eta inguruko herrietako eskola komunitatea norabide berean inplikatuko duena. Hartua dugun bideak berak eramango gaitu helburu horretara.

**Anjel Ugarteburu**
Arreiturre Institutuko zuzendaria



Etorkizuna! Berba polita baina momentu oro kontuan edukitzen ez bada, beltza bihur daitekeena.

Elgoibarko Eskola Publikoaren etorkizuna orain dela 8 urte hasi zen sendotzen guraso eta irakasle talde batek euskarari lehentasuna emanaz D eredua ezarri zuenean; Hezkuntza Ordezkaritzaren baimenik gabe, hasieran eta honen aldeko borrokaren ondoren legeztatua.

Gaur egun ere, etorkizuna lantzen ari gara, Elgoibarko Hezkuntza eskaintza aberastu eta sendotzeko, Mendarokoekin eta Herri Institutuarekin batera, Elgoibartarrontzat nahi dugun kalitatezko Eskola Euskalduna eraikitzen. Ikaslea bere osotasunean hartzen duena eta hezkuntza baino gehiago heziketa integrala, kontestu honetan hartzen du Eskola Publikoak bere esanahi osoa: denona, herritik sortua, ...

Bukatzeko, Eskola Publikoaren etorkizunari begiratzerakoan oso baikorrak gara, eta herri mailako egoerari buruz ere berdin.

**Timo Uzin**
Herri Eskolako zuzendaria



Nik ez dakit hemendik 20 urtera Elgoibar zein egoera orokorren barruan aurkituko den, baina espero dut:

- 1962tik erein izan dugun haziak gazte euskaldunen fruitua ematen segitzeko moduko egoera izatea Euskal Herrian.
- Gure eskoletan irakasten denak bizitzan lana topatzeko bidea erraztea.
- Oraingo abiadura honekin ordenadorea erabat heda-tzen den neurrian, ikasleen idazketa eta kalkulu gaitasunak gehiegi ez makaltzea, munduko jende askorekin eta desberdinarekin INTERNET-en bidez hitzegiteak elkartasun jarrera areagotzen lagun-tzea, euskarak hor ere esparrua zaintzea eta ikasleak gazteleraz, ingelesez eta frantsesez egoki moldatzea.
- Irakasleek beren ilusioari eta gurasoek oraingoen etorkizunari eustea.
- Hainbat jakinduria irakatsita ere, ikasleen eguneroko irribarrea ez iluntzea.

**Alfonso Guilló**
S. Bartolome Ikastolako zuzendaria



Mende aldaketak badirudi planteamendu berriak sortuko dituela gizartean, eta zer esanik ez hezkuntzan. Biharretziko heziketak, ikaslea erabateko gizaki bihurtzeko helburuetan oinarrituta egon beharko luke: gazteen prestakun-tzak, edukiak, gizarte baloreak, partehartze zabalagoa eta norberaren ahalmenak gara-tzea..

Hau lortzeko irakasleok arreta gehiago jarri beharko genuke haurren izakera, interes eta zaletasunak ezagutzen. Izan ere, gaur egun etorkizunerako prestatzen ari den eskolak gero eta lotura handiagoa du gazteen lagunarte eta gizarte inguruarekin. Instituzioek, bestalde, aukera zabalagoa eman behar lukete de-rrigorrezko hezkuntza 0tik 16 urtera bitartean izateko, nahi dituzten ikastetxeak aukera-tzeko, ikasketak ugaritzeko, ikastetxeen arteko harremanak plangintza orokor batetik abiatuz.

Hezkuntza pertsonalizatuagoa izan beharko litzateke etorkizunean, ikaslearen izaerari arreta gehiago jarriz eta dagokion garrantzia onartu eta bultzatuz.

**Nekane Aranburu**
Pilar ikastetxeko zuzendaria




# Gazteria - Kultura



Elgoibarren gazteok ez daukagu izan genezakeen protagonismoa; etorkizuna ez da hobea izango, gauzak asko aldatu ezean. Denok ezagutzen ditugu sistema honek gazteoi sortzen dizkigun arazo oinarrizkoak: langabezia, prekarietatea, norbere etxebizitzaren eza, euskaraz osoki ezin bizi izatea, sexualitatea nork bere erara bizitzeko askatasunik ez izatea... Azken finean, balore autoritario eta militarren pean bizi eta biziko garela. Gainera, sistemak isilik egotera behar-tzen gaitu (informazio manipulazioa, modak, etab. gogoan). Udal “demokratiko” honek gaurdaino ez du ezer egin egoera hau aldatzeko; etorkizunerako ez dugu besterik espero.

Lan asko daukagu egiteko. Halere, gazteon elkargune bat beharrezkotzat jotzen dut, guk geuk gestionatutako eta lege propioak dituen gaztetxe bat hain zuzen ere, arazoez hitzegin eta mota guztietako ekintzak antolatzeko.

**Maider Elustondo**
JARRAIko kidea



Ba, ez dakit. Oraina ikusita, epe mo-tzera ez dut geroa oso oparoa ikusten. Izan ere, jende gaztea lanik gabe dago, beste batzuk aldi baterako kontratuekin, pisu bat erosteko lain ez dutelarik, ezkondu nahi eta ezin... Bestalde, hor dauzkagu 14 urteko batzuk tabernetan sartuta edo drogaz beterik, ikasle batzuk ikasi nahi eta gurasoek ikasketak ordaintzeko dirurik ez, beste arazo batzuen artean...

Halere, epe luzera, nork daki? Ikustekoak ikusirik eta etor daitezkeen gauzak kontuan izanik, baliteke datozen gazteek egoera aldatzea eta estabilitatea nahi izatea, beraien artean batasun bat egotea, pake giro jator bat. Gainera, Europan ere ia sartu gara eta aurrerapen teknologikoak hor dauzkagu ateak zabaltzeko gure lantegiei, lanpostu berriei, harreman sozial bati... Guzti horiek ondo etorriko zaizkio gazteriari.

Gauza bat argi daukat, ORAIN saiatu behar gara gauzak ondo egiten GEROA ona edo hobea izan dadin, eta ez dut pentsatzen indarkeria bide ona izan daitekeenik.

**Agurtzane Arriola**
Uri Buru Batzarreko kidea



Herrian dugun kultura gaur egun ez dut uste lerro labur batzuetan aztertzea erraza denik, eta baliteke, kultura hitzaren esanahia korapilatsua denean, irakurle adiskidearekin ados egon naitekeen puntu bakarra izatea.

Edozein herritarrek ikus dezake kanpotik kultur-gidaren bidez inoiz baino talde eta pertsona gehiago dabilela kulturaren inguruan, eta gauza bera gerta-tzen da kulturaren mailari buruzko iri-tziez jabetzean. Barnetik, berriz, bai agintari eta bai komunikabideei kritika zorrotzak luzatzen dizkiegu, hauek zeharo bazterturik baitute kultura, agian izan daiteke errentagarritzat ez hartzea.

Herrian, Euskal Herri osoan bezala, bi kultura mota desberdin ditugu, batetik euskaldunona eta bestetik atzerritarrena. Gutxi balitz,, badirudi agintariak azken urteotan haundikerietan erortzen ari direla eta honetarako gure nortasunaz gain, milaka dolar kanpotarrei eskainiz, bitartean gurea baztertuz.

Gogoratzen dudan gertaera kontatu nahi dut: duela 25 urte leihatila batean erdera ezagutzen ez zuten herritarrek mesprezua jasotzen zuten. Zorionez euskararekin gertatzen ari den bezala, emeki-emeki geroari begira kultura uniber-tsala onartzen dut, baina geurea ezagutu eta ahaztu gabe, noski.

**J. Inazio Sarasua**
Dantza eta Musika Fundazioko
Kontseiluko presidentea

HEMENDIK
BODEGA
AFARI MERKEAK
Gure berezitasunak:
- Kazuelatxoak
- Olagarroa
- Haragia erreta
Zorionak eta Urte Berri On herritar guztioi!
Pedro Muguruza 20. Tel. 74 25 00 ELGOIBAR

ARKUPE
TINDATEGIA
Zorionak!
Foruen Enparantza 4
Tel. 74 00 91 - ELGOIBAR

# Behar baino gehiago gastatzen duzu Gabonetan?



### MANOLI AZPEITIA

**67 urte, etxekoandrea**

Ez, bihar baino gehixo ez. Beti gastatzen da zeozer gehixo, familixia etorri jatzula edo... Erregaluetan ez, behar danian eta falta danian eta kitxo.



### ANJEL MARTÍN

**36 urte, margolaria**

Bai, seguruena. Gozoa dela, edariak direla, txanpaina... Oparietan, beharbada, aurrekontua gehiago estutzen dugu, beharren arabera.



### TXARO ETXEBERRIA

**45 urte, irakaslea**

Piskat gehiago. Halere, opariekin kontrolatzen saiatzen gara. Norbaitek zerbaiten behar badu, fetxa hauetan erosten dut edo, bestela, beherrapenetan.



### CELSA FERNANDEZ

**57 urte, dendaria**

Beti gastatzen da gehiago, janaria dela, opariak direla... Ahal dugun neurrian gauza bereziak egiten ditugu, besteengatik besterik ez bada ere.



### ANTONIA ROA

**49 urte, ileapaintzailea**

Gehiago gastatzen da, bai. Esate baterako mariskoa jaten dugu, urtean zehar egiten ez duguna. Gabonetan diruari ez zaio hainbeste begiratzen.



### CRISTOBAL BERISTAIN

**40 urte, fresadorea**

Behar dena baino gehiago gastatzen da, bai, baina logikoa da, kulturaren parte da eta, nahiz eta konturatu inguruan behar asko dagoela.

**Zorionak eta Urte Berri On!**
foto azkue
San Bartolome 26 - Tel. 74 08 48 - ELGOIBAR

INDUSTRIAS LANBI, S.A.
MAKINAK NEURRIRA
Manipulazioa eta Muntaia - Makina Berezia
Bruñidorak - Kontrol dimentsionala
**Jai alaiak igaro itzazue!**
Donostia-Bilbo Errep. 53. km. - 20870 MENDARO - Tel. 75 50 00 Faxa: 75 51 62

GOXO
**Ogia**
**Boiloak**
**Gozokiak**
*Zorionak eta Urte Berri On!*
...
*Mendarozabal,5 - ☎ 75 51 90 - Mendaro*

AZPELETA elektrizitatea
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ARGIZTAPENAK
- AUTOMATISMOAK
*Ondo pasa Gabonak!*
San Frantzisko 51, behea. **Tel: 74 12 38**



# Hitzal

## Etxeko loreak

Abenduak 23, astelehena ·
· Kultur Etxean, 7:00etan

ANTOLATZAILEA:
ELGOIBARKO IZARRA

BABESLEAK:
MIMOX - ASTIGARRAGA - EL RUSO




# Gabi

JATETXEA

• GOSARIAK •
• PINTXOAK •
Despedidak, ospakizunak

MENU BEREZIAK

Nafarroa enparantza - Tel 74 12 30



# HERRI ESKOLA

*Eguberri*
*eta Urte berri On!*

# ● "Elgoibarko baserrien gida-liburua"

DEBEMEN eta Udala "Elgoibarko baserrien gida-liburua"prestatzen ari dira. Liburuan Elgoibarko auzo guztietako 200 bat baserriren berri ematen da. Auzo bakoitzari buruzko datuak eman ondoren, segidan baserri bakoitzari buruzko fitxa bana agertzen da, argazki eta guzti. Liburua salgai jarriko da liburudendetan. Bilduma hau baserrien inguruan Elgoibarren egin den lehen argitalpena da.

# ● Alkatea eta Gazte Asanbladaren bilera

Gaur, hilak 20, eguerdiko 12etan alkateak eta Gazte Asanbladako kideek bilera izan dute gaztetxearen auziaren inguruan. Modu honetan, Gazte Asanbladaren eskakizunari erantzuna eman dio alkateak. Gazte Asanbladakoek idatzi bat bidali zioten alkateari erantzun bat jaso nahi zutela adieraziz. Abenduaren 20a izan zen Gazte Asanbladak alkateari erantzuna emateko jarri zion azken eguna. Gazte Asanbladaren "Gaztetxearen Aldeko Ekimena" izeneko proiektuak 500 herritar eta kolektiboren atxekimendua jaso zuen. Gazte Asanbladakoen esanetan "sinatu zutenek arazo hau elkarrizketaren bidez konpontzeko eskatzen zuten".

# ● Pedruskoren zozketa

Pedrusko Futbol taldeak Gabonetako bi otar zozketatuko ditu bazkideen artean jaso duten laguntza eskertzeko asmotan. Zozketa bihar, hilak 21, Pedrusko eta Bergara futbol taldearen arteko partiduaren atsedenaldian egingo da. Partidua arratsaldeko 14,30etan hasiko da Mintxetan.



# Bihar, hilak 21, jarriko da ikusgai Parrokiko Jaiotza Leku-Ederren

Parrokiko Jaiotzaren Batzordeak amaitu berri du 51 metro karratuko Jaiotzaren muntaia. Aurten ere Leku-Ederreko lokalean jarri dute eta bihar, hilak 21, irekiko ditu ateak jendeak ikus dezan.

Urtero bezala, hainbat berrikuntza egin dituzte. Batetik, izar mugikorrak kendu egin dituzte eta hainbat elementu lekuz aldatu dira. Jesus, Amabirjina eta San Joseren estalkia ezkerraldean dago kokatua, eta ibaia ere beste leku batean jarri dute. Berrikuntza inportanteenak, jaiotzaren atze aldean egin dituzten polistilenozko gaztelua eta mendikatea dira.



Mugimendua duten irudiak 23 dira. Bakarra da berria: Faustino Arregik emandako margolari bat. Urrian hasi zen muntaian zortzi bat lagunek hartu dute parte, tartean arotzak, elektrizistak, margolariak etab. Jaiotza Leku-Ederren dagoen laugarren urtea da, nahiz eta egunen batean elizako kaperan kokatzea den asmoa. Jaiotzaren aurrekontua 500.000 pta.koa da. Bisitarako ordutegia honako hau da: jai bezperatan eta jaiegunetan, goizeko 10,30etatik 1,30ak arte eta arratsaldeko 17,30etatik 20,30ak arte. Astegunetan, arratsaldez bakarrik egongo da zabalik. Jaiotzaren Batzordekoek eskerrak luzatu nahi dizkie Leku-Ederrekoei lokala uzteagatik bai eta diru-laguntzak ematen dituzten guztiei ere. Bisitarako azken eguna urtarrilaren 19a izango da.

# Felix Ezkurrak Enpresak Sortzeko Gazteentzako Ideia

Feliz Ezkurra elgoibartar gazteak, Eusko Jaurlaritzak antolatutako Enpresak sortzeko Gazteentzako XI. Ideia Lehiaketa irabazi berri du. Felixek "etxeko plastiko eta metalezko ontziak eta tetra-brikak birziklatzeko" ideia aurkeztu zuen. Felix Ezkurrak injinerutza ikasketak egin zituen Arrasaten. Esan digunez, "oin dala 2 urte Frantzian ikusi gendun plastikuak, metala eta tetra-brika birziklatzeko kontenedoriak zeudela eta hemen esperientzia piloto batzuk bakarrik. Ideia martxan jartzia erabaki gendun". Enpresa martxan jartzeko dirulaguntzak eskatu zituzten, beraz, "oin irabazitxako sarixa oso ondo etorriko da". Felixek sariagatik 1.100.000 pta. irabazi ditu eta horrez gain, beste 2.500.000 pta. gehiago enpresa eratzeagatik. Birziklatzeko plantak gestionatu eta eraiki egiten ditu Felixen enpresak eta Legazpin eskola bat sortu dute, ikasleei ingurugiroari buruzko azalpenak emateko.



## Elgoibarko festa herrikoiak

Atzo, hilak 19, “Festa herrikoiak Elgoibarren” izenburuko liburua aurkeztu zuten Kultur Etxean. Koldo Lizarralde etnografoaren bosgarren lana da eta oraingoan jaien inguruko dokumentua egin du. Elgoibarren ospatzen diren jaiak eta desagertu direnak jasotzen dira liburuan. Elgoibarren egiten ziren zezenketak eta jaietan musikariek izaten zuten paper berezia kontatzen du Koldok, besteak beste, bere liburuan. Udalak argitaratu du liburua eta euskaraz eta gaztelaniaz kaleratu da. Herriko liburutegietan eta Kultur Etxean 1.000 pta.ren truke eskura daiteke.






## Antxon Agirreren hitzaldia

Euskal Herriko usadio eta ohituren inguruan jardun zuen Antxon Agirre Ikerfolk-eko ikerlariak joan den ostegunean. 650. urteurrenaren bueltan antolatutako hirugarren hitzaldia izan zen eta bertara hurreratu zen jendea gustura aritu zen ikerlariaren hitzak entzuten.

## Jaiotza Morkaikon

Morkaiko Merdizale Elkarteak, urteroko ohiturari eutsiz, Gabonetako jaiotza Morkaiko mendian ipintzeko irteera antolatu zuen pasa den domekan. Argazkian agertzen den elgoibartar kuadrila animatu zen Morkaikora igotzera eta behin bertara iritsi ondoren, kurutzpean kokatu zuten jaiotza.



**ELGOIBARKO OSASUN GIDA**

**PODOLOGOA**
• Iñaki Ribero ......................San Bartolome, 28 ...................Tel.: 74 32 90

**ODONTOLOGIA**
• Agustin Sanchez .............Antonio Arrillaga, 8 ...................Tel.: 74 37 47
• Antton Izagirre .................San Frantzisko, 31 ...................Tel.: 74 19 52

**BIHOTZA ETA BIRIKAK**
• J. Etxeberria ....................Santa Ana, 1 .............................Tel.: 74 22 75

**ATSak**
• Marta Diego Arrieta .........Erretxindi, 2 ..............................Tel.: 74 02 33

# Gillermo Garatek HBren salaketak gezurtatu egin ditu

*Gillermo Garate alkateak azken asteotan HBk egindako salaketak gezurtatu egin zituen prentsaurrekoan, "HBren oposaketa egiteko era, iraintzea eta pertsonen ohoreraren aurkako salaketak jaurtitzea da".*



*Herriko Antzokiko obretako ustezko irregulartasunak direla-eta sortu da auzia.*

Herri Batasunak aurreko legealdian izandako hainbat irregulartasun salatu zituen eta, "EAJ eta Ulacia konstruktora finantziatu" zirela gaineratu zuen. Batez ere Herriko Antzokian ikusi zituen Herri Batasunak irregulartasunak. Honen aurrean, Gillermok hainbat azalpen eman zuen. "Hasieran insonorizazio lanak egin behar ziren antzokian baina geroikusi zen beste zenbait obra ere behar zituela. Ni Kultura Batzordeko lehendakaria nintzen eta gestioak egin nituen dirulaguntzak eskatzeko. Aldundiak eskainiko ziguna kontutan izanik, insonorizazioa ezezik, beste konponketa batzuk egitea ere aztertzen hasi ziren teknikariak". Kontratazio zuzena egitearen arrazoia, "dirulaguntza jasotzeko, urtea amaitu baino lehen obrak hasita egon behar zutela" zen. "Hiru eskaintza izan genituen eta merkeena hartu genuen, Ulaciarena". Ulaciak obra zibila egin zuen, Osgabek isolamendua, Giroak aire egokitua eta Ezcarayk ekipamendua. Hortik aurrera, hasiera bateko proiektua handitzen joan zen, "insonorizazioa, eskenatokia, butakak, aldagelak, kanpoko aldeko espaloia eta hormak..." eta ondorioz aurrekontua ere igo egin zen, azken kopurua 126 milioikoa izanik. Garatek Herriko Antzokiaren inguruan izan ziren adjudikazio, fakturak, zertifikatuak, obren zuzendariak zirenen azalpenak aldaketei buruz eta bestelako datuak jasotzen diren fotokopiak banatu zituen prentsaurrekoan, "argi gera dadin dena egin zela argi eta garbi, ongi kontrolatua".

**Ulacíaren hitzak**

Jose Mari Ulacíak ere joan den astean HBk egindako salaketei erantzun nahi izan dio. BARRENi emandako azalpenen arabera, "sekula ez da kontratazio zuzenik egon Udalaren era gure artean. EAJ eta gure artean 'txantxullo'-ren bat egon dela esatea fantasia baino ez da". Herriko Antzokiaren kasuan, "aurrekontu merkeena aurkeztu nuelako eman zidaten niri. Soinua, berogailua, aire egokitua, elektrizitatea, butakak eta abar beste gremio batzuen esku utzi zen. Aurrekontua uste baino altuagoa atera zen aldez aurretik zehaztutakoa baino metro gehiago landu behar izan zirelako eta espaloi, hormak eta bestelakoak ere egin behar izan genituelako".

Jose Mari Ulacíaren hitzetan, "HBren salaketak ez du inolako oinarririk, gezurra da irregulariutateak egon direla etaeuren hitza atzera botako dutela espero dut, salaketak gezur hutsa baitira".

---

• BALORAZIOA • BAL

## 1996

*Abenduak 20. Urteko azken alea da honako hau. Garai hauetan nahi eta nahi ez, joan den urteari errepasoa egiteko ohitura izaten dugu. Atzean geratzen dena ona izan den, gaizki egindakoak errepika ez daitezen hurrengoan nola jokatu behar den aztertzen dugu.... Herri baten funtzionamenduan Udalak ezinbesteko papera betetzen du eta hor, noski, alderdi politikoek. Horregatik, 1996a zer nolako urteari buruzko balorazioa egitea eskatu diegu guztiei.*

### Gillermo Garate (Alkatea)



96. urteak denetik izan du, baina nik positibotzat jotzen dut. Gure enpresa eskola zen Sigma lantegiaren itxierarekin eman genion hasiera. Sektore produktibo honen etorkizuna zalantzaz ikusten bazen ere, zorionez ez zen horrela izan eta esan daiteke, herriaren oinarrizko sektorea den horretan alaitasuna egon badago, ela eta horrek herriko giroa ona izaten laguntzen duela.

Politika mailan, bisita garrantzitsuak izan ditugu, batez ere Lehendakariarena. Herri mailako politikari dagokionean, berriz, ezin dezaket esan helburu amakomunetara bideratuko gaituen armonia lortzeko bezain helduak gaudenik.

Zoritxarrez aurten Elgoibar komunikabideetan izarra izan dela gaineratu behar da, nik ulertzen ez ditudan jokabideetan herritarren aurka koktelak botatzeagatik.

Kultura arloan, Elgoibarko idazle eta Elgoibarko gaiekin dexente liburu argitaratzen ari gara. Kilometroak antolatu da eta ohiko ekintzak, dexente gehitu direla azpimarratuko nuke.

Honek guztiak bide ematen dit 1997. urteari ilusioz eta 650. urteurrena ospatzen duen herri bateko semearen fedez egingo diodala aurre. Elgoibartarron ezaugarria zailtasunei adorez, lanaz eta irudimenez aurre egiteko ahalmena baita.

• BALORAZIOA • BAL

## Isaak Loiola ( EAJ/PNV)



Lerro hauek argitaratuko diren unean, elgoibartarrak gure herriaren sorreraren 650. urteurrena ari gara ospatzen. Etorkizunari itxaropenez begiratzeko arrazoi faltarik ez dugu urte amaiera honetan, eta etorkizun hori Bakea eta Lana bezalako balioen gain eraiki behar dugu. Eraikuntza nazionalerako ezinbestekoak, zalantzarik gabe. Bakea, gure herriak lehenbailehen eskatzen du eta guztion artean lortu behar dugu. Lanerako jarrera, berriz, Euskal Herriaren ezaugarri berezia da eta. aldi berean, gure historiaren zutaberik garrantzitsuena.

Elgoibartarrontzat hain seinalatua den egunotan, abertzale garenok tinko eusten diogu gure arbasoek duela 100 urte hartu zuten konpromezuari, Euskal Herriaren eta, gure kasuan, Elgoibarren etorkizunaren alde lan egiteari, alegia.

Lerro hauen bitartez, Eguberri zoriontsu eta urte berri paregabe bat opa dizkizuet bihotzez, bai gure artean zaudetenoi eta baita egun berezi hauetan Elgoibarrera etorri ahal ezin duzuenoi ere.

## Nieves Catarain (PSE-EE)



Bukatzear dagoen urteari buruzko balorazio munizipala positiboa izan da PSE-rentzat. Inbertsio handirik egin ez den urtea izanik, urte hasieran jarri genituen helburuak bete direla esan daiteke, Udalak duen defizita ahal den neurrian jaitsiz. Helburuak bete egin dira urte hau ixten dugunean, 1996a urte ona izan dela ikusiko dugu, hori guztia komisio guztietan gastuetan egin den kontrolari esker.

Udal Kirol Patronatua ere aipatu nahi nuke, bai eta Polikiroldegiaren gestioa Udalaren esku egotea ere. Horri esker, herritarrei zerbitzu zuzena eman ahal zaie eta gaur egun dauden zerbi-tzuak hobe daitezke.

Lerro hauen bidez Gabonaz zoriondu nahi ditugu eta 1997a urte oparoa izan dadila guztiontzat.

## Ales Arrieta (EA)



Gure lana Udal barruko erabakiak ahal den eta kontsentsurik handienarekin onartzea izan da. Badakigu esker txarreko lana dela baina herriarentzat onena delakoan egin dugu.

1996. urteko erabakirik onena aurrekontuak izan dira. Aurretik zegoen egoera ikusita, aurrekontuak ondo egin dira eta gastuak ondo kontrolatu. Hor daude, baita ere babes ofizialeko etxeak eraikitzeko palngintza, Kirol Patronatua, Kiroldegiaren munizipalizazioa, Ongarrirekin 4 urterako sinatu den hitzarmena, kontratazioen legeztatzea eta sortu diren berriak publiko egitea, Elgoibarko 53 entitatek sinatu duten Gurean Bai plangintzaren bultzada, etab..

Badira ondo egin ez edo egiteke daudenak eta datorren urteari begira landu beharko direnak, besteak beste, Udaletxe barruan euskararen erabilera bultzatzeko plangintza martxan jartzea, obra batzuk (San Pedroko bidea, Kiroldegiko euri tantak kendu...), gazteentzat plan egoki bat martxan jarri...

Bukatzeko, BARRENek eskaintzen didan aukera aprobetxatu nahi dut elgoibartar guztioi Gabon zoriontsuak eta Urte berri on bat opatzeko.

## Juan Ignacio Ausin (EB-IU)



Maila pertsonalean balorazio positiboa egingo nuke joatear dagoen urteari buruz. Izan ere, lehen ezagutzen ez nituen hainbat pertsoarekin erlazionatzeko aukera eman dit. Ikuspuntu politikoari dagokionean, berriz, ezin dezaket gauza bera esan (minoria izatea onartuta daukadan arren). Tripartitoak EB-IUk plenora eraman dituen mozio ia guztiak atzera bota ditu eta mahai gainean jarri ditudan proposamenak ez dira kontutan hartu. Alde horretatik, beraz, indiferen-tzia eta komunikazio falta egon direla esango nuke.

## Pello Mendizabal (HB)



HBk argi azaldu zuen legealdi hasieran une gogorrak ezagutuko genituela, PNVk aukeratutako alkategaia eta orain Udalaren kontura bizi nahi duen Oruesagasti, politika ilun eta zikin baten ordezkariak baitziren. Duela hilabete eskas Herri Kontuen Euskal Epaitegiak argitaratu duen txostenak garbi adierazi du jende horren gestioaren kalidadea: ilegaltasunak kontratazioetan, kontratazio zuzenak handik eta hemendik, zorraren igoera negoziazio desastrosoen ondorioz, kontabilitatearen falsifikazioak,... Laster eman beharko dizkiote azalpenak herriari negozio honen gain.

Bien bitartean, Elgoibarko herria zoriondu nahi dugu Paktoaren Manifestoaren aurrean agertu duen heldutasunarengatik, errepresiobideei uko eginez, elkarrizketa eta negoziazioaren alde apostu eginez. Nahiz eta sekulako kanpaina jasan, nahiz eta datoak manipulatu, tontotzat hartzen gaituen Alkate Jaunak bestelakorik eskatu.

## Juan Carlos Abian (PP)



Enplegua sortzerako orduan aukera eder bat galdu dugula uste dut. Batetik, zergak igotzeko erabakia hartu baita eta bestetik, langabetuentzako ikastaroek ez dutelako dirulaguntzarik jaso. Hirigin-tza mailan, ez dira herritarren eskakizunak aintzat hartu, besteak beste, kolunpioak eta jarlekuak jartzeko eskaria egin izan dutenean. Udaletxean, barne eta pertsonal sailari dagokionean, brigadari buruzko eztabaidaren zain gaude, brigadako langileek ordu estrarik egin ez di-tzaten auziaren ingurukoa, alegia. San Bartolome jaietan, zenbait erradikalek gure herriaren irudi kaxkarra eman zuten kanpora begira. Gogoratu istiluotan Castañares elgoibartarra erre zutela coctel molotov-ekin. Kilometroak jaian egin zuen eguraldi txarrarengatik ezin izan genion San Bartolomeetan eman genuen irudi txarrari bueltarik eman.

Udalean euskararen ezagutza "kal-tzadorearekin" sartu nahi zaigula irudi-tzen zait eta nire ustez, honek kalte baino ez dio egingo euskarari. Nire eredu linguistikoa galego-

Iraegui

ARGI BIRAKOIEN
ERROTULU MUGIKORRAK

- ERROTULUEN DISEINUA ETA FABRIKAZIOA
- BARRUKO ETA KANPOKO SEINALIZAZIOA
- ERROTULAZIOA-SERIGRAFIA

*Zorionak eta Urte Berri On!*

Olaso Industrialdea 15 - 55A
20870 ELGOIBAR

Tel. 74 39 52 - 74 37 06
FAX. 74 39 51





*ALDERDI POPULARRAren izenean*

*Gabon Zoriontsuak eta Urte Berri On!*

PP



PILAR IKASTETXEA

ZORIONAK
ETA URTE BERRI

Elgóibar

# 1996 urteari

# ERREPASOA









# URTARRILA



Elgoibarko Izarra euskararen erabilera suspertzeko Hitzarmena aukeztu zuen: **Gurean Bai**. Herriko 51 elkartek proiektuan parte hartzeko konpromezua hartu zuten. Aurkezpen ekitaldian Miren Azkarate euskaltzainak, Iñasio Garmendia Elgoibarko Izarrako lehendakariak, Gillermo Garate alkateak eta SIADEKOko Kike Amunarrizek hartu zuten parte.



596 lagunek hartu zuten parte **Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketetan**. Prosan Ane Barrenetxea, Jon Garate eta Luzia Zubiaurre izan ziren lehen saria jaso zutenak eta bertso-paperetan Aitor Arrieta, Iban Herrero eta Iñigo Izagirre.

Paulo Guerrak irabazi zuen **LIII. Mugerza Krosa**. Senior emakumezkoen artean Derartu Tulu nagusitu zen; junior gizonezkoetan Francesc Vives eta junior emakumezkoetan Silvia Montanet.



■ **San Lazaro egoitzak** nagusiei eskainitako astea ospatu zuen. Besteak beste, txokolatada, bingoa, hitzaldiak, pelikulak, musikeskolakoen saioa eta Gelatxorekin dantzaldia izan zituzten.

■ BARRENek Elgoibarko eta Mendaroko **1996ko gida komertziala** kaleratu zuen. Gida doan banatu zen harpidedun guztien artean. Bertan, Mendaroko eta herriko merkatari, enpresa eta gremioen helbide eta telefono zenbakiak azaltzen ziren.




**INLOZU, C.B.**

KROMATUAK ETA PABONATUAK

- Leguntzeak
- Nikeldura eta margotze disdiratsuak
- Margo ilunetan adituak
- Labean zikaturiko pinturak (zimurgarriak, etab...)
- Pintura ixurketak (ugar kentzea, garbiketak eta piezen margoketa)

Gabon Jai

**P. Muguruza Etorbidea, 14-☎ 74 16 31-ELGOIBAR**

**Andres Osoro**
**GARRAIOAK**



Santa Ana 32-1E
ELGOIBAR
Tel. 74 36 27
Mobila 989 80 20 76

■ Aitor Argarate eta Jose Inazio Izagirre elgoibartarrek Argentinako **Aconcagua** mendiaren tontorra egin zuten abenduaren 31n. Jose Inazio Izagirrek izozte arazoak izan zituen oin bietako behatzetan eta zati bat galtzeko zorian egon zen.

■ Isaak Loiola hazienda buruak eman zuen prentsaurrekoan azaldu zuenez, inbertsio handien garaia amaitu da Udalean. Datozen lau urteetan **"austeritateak"** markatuko du Udalaren martxa, beti ere azpiegitura eta zerbitzuei dagokionean orain arteko maila mantenduz.

■ Karakaten antena berri bat eta telekomunikazio zentro bat eraiki behar zutela eta, **Karakate Bizirik** plataforma eratu zuten Soraluze eta Elgoibarko hainbat gaztek aipatu proiektuaren aurka.

# PROTAGONISTAK

❑ **Iñigo Otaño eta Mónica Fernandez** elgoibartar gazteak Eibar Hiria ipuin lehiaketan sarituak izan ziren. Iñigok lehen saria irabazi zuen 18 eta 25 urte bitartekoen artean eta Mónika bigarren geratu zen 14 eta 17 urtekoen artean.





❑ **M. Cruz Ramal** dardoetan Espainiako txapelduna izan zen. Gironako Caldas de Malavella herrian izan zen txapelketan, 301 modalitatean Espainiako txapelduna izateaz gain, triple mistoetan ere irabazi zuen. Killer izenekoan txapeldunorde geratu zen eta taldeka lehenak izan ziren.



❑ **Juan Mari Mendizabal** Euskal Kulturaren Batzarreko (EKB) presidente izendatu zuten. Mendizabal Elgoibarko AEKn hasi zen, ondoren Gi-puzkoako AEKren koordintzaile izatera pasa zen eta gaur egun EKBko presidentea da. EKBk euskararen munduan lanean diharduten herri ekimenak koordintzen ditu.



❑ **Iñaki Perez Armendia** elgoibartarrak Debako Tene Mujika lehiaketan 2. saria irabazi zuen. Ipuin berak Zumaiako Julene Azpeitia lehiaketan ere 2. saria jaso zuen.



❑ **Patxi Arriola eta bere txakurra Dalo** bigarren aldiz geratu ziren txapeldun Espainiako Oilagorren txapelketan.

❑ **Rosa Alamino**k irabazi zuen Morkaikok antolatutako argazki lehiaketa. Rosak ateratako argazki irabazleak "Capitol Reef" izena zuen. Bigarren saria Josu Iparragirrerentzat izan zen eta sorta bereziaren saria Andoni Etxeberriak eskuratu zuen. Ikusleek Migel Angel Velaren argazkiari eman zioten boturik gehien.

❑ **Maite Rementeria**k irabazi zuen Udal Kirol Patronatuaren logotipo lehiaketa. Aurretik, Maitek Elgoibarko 650. urteurreneko logotipo lehiaketa ere irabazi zuen.

**Kalamua** Coop.
GARBIKETA ZERBITZUAK
ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA
Etxeak, Lokal komertzialak, enpresak,... garbitzen ditugu.
Nagusiak zaintzen ditugu.
*Gabon Zoriontsuak eta Urte berri On!*
Morkaiko, 1 - 20870 ELGOIBAR
☎ 74 26 77

karkizano
*San Franzisko 12-14, Tel. 74 05 49*

Arrieta
San Bartolome 18
☎ 74 08 49

# OTSAILA



**Herri Institutuaren bateratzearen** azken urratsaren aurkezpena izan zen otsailean. Mekanika, Institutua, Herri Eskola, IMH eta Mendaroko Ikastolak eskaintza bateratua prestatu zuten, bost ikastetxeek hezkuntza proiektu bateratua egitearen garrantzia azpimarratuz.

Aurtengo **ihauteriak zuri-zuriak** izan ziren. Elurra izan genuen aspaldiko partez. Halere, jai giroa urtero bezain epela izan zen.



■ Elgoibarko **Herri Eskolak logotipo** berria estreinatu zuen. Logotipoa ume batzuk osatzen dute, eskola baten teilatupean. Hil honetan, ate irekien eguna ere ospatu zuten.



■ **"Elgoibarko Gaztetxearen aldeko Ekimena"**ren aldeko 500 sinadura aurkeztu zituen Gazte Asanbladak Udaletxean. Sinatu zutenek, Udala eta Gazte Asanbladaren arteko elkarrizketak hastea eskatzen zuten.

■ **Gipuzkoako Judo Txapelketako** bigarren jardunaldian Ibaikoek urrezko eta zilarrezko launa domina eta brontzezko bat lortu zituzten.



**Santa Eskeko koruak** kantari atera ziren ostaileko lehen larunbatean. Elgoibarko Izarraren baserriz baserriko eskea, Etxegiñak sortutako Santa Eskeko koru tradizionala, Ikastolako haurrak eta Mendaron ere, lau auzoetan koplatan aritu ziren egun osoan zehar. Honez gain, beste jai bat, gozo-gozoa hor nonbait, ospatu genuen otsailean elgoibartarrok. San Blas eguna, hilaren 3an, anis opila ederrak janez ospatzen da.


**PILAR arrandegia**



*Ondo pasa Gabon Jaiak eta Urte berri On!*

San Frantzisko 30 • Tel. 74 18 35 • ELGOIBAR



**Gizakia ez da lanaz bakarrik bizi. Ondo pasa**

**USATORRE**
**Taberna**

*Zorionak eta Urte Berri On!*

San Antolin. Tel. 74 17 99

■ **Iñaki Jaio** elgoibartar presoak, Hueskako espetxean dagoena, **gose grebari** ekin zion otsailean. Grebaren arrazoia presoen dispertsioa salatzen zen.

■ Orain arte hiruhilabetero egiten ziren **plenoak hilean behin** izatea erabaki zuen udalbatzak. Hasieran IU eta HBren eskakizuna izan bazen ere, azkenean EAJ-PNVk aurkeztutako mozioa onartu zen.

■ Elgoibarko gaztetxoen hiru futbol talde, **Deba Hondartzako txapelketan** ezin hobe sailkatu ziren: irabazle Lojantzi taldekoak geratu ziren, hirugarrenak izan ziren Pitxulines-ekoak eta laugarrenak M.J. Gozotokikoak.

■ Udal Euskara Zerbitzuak euskararen erabilerari buruzko kale neurketaren emaitzak kaleratu zituen. Honen arabera, **euskarak gorakada motela** izan du, txikiteoak eta gazte giroak erdaldunenak izaten jarraitzen dutelarik.

■ **Altzarien birziklaiari** buruzko ikastaroan zebiltzanak altzarien erakusketa egin zuten Kultur Etxean. Gai honek gaur egun duen arrakastaren islada izan zen erakusgela bisitatu zuten lagunen kopuru handia.

■ NOW programa europarraren barruan, 360 orduko ikastaroa jaso zuten hainbat emakumek **eraikuntza eta bulegoen garbiketaren** inguruan. Ikastaroaren helburuetariko bat zera zen: emakume hauek lan munduan sartzea.

■ **Gimnasia erritmikoaren** Gipuzkoako Txapelketaren bigarren jardunaldia jokatu zen Elgoibarren. Ibai Gimnasioak antolatuta, lehen aldiz burutu zen horrelako ikuskizun bat Elgoibarren.

# PROTAGONISTAK

❑ **Ana Etxaniz** alebin mailako nesken artean eta **Angel Quintana** infantil mailako mutilen artean, hirugarren postuan geratu ziren Gipuzkoako txapelketarako baliagarria zen eskolarteko kros txapelketan



❑ Madrileko Kongresurako martxoaren 3an izan ziren hauteskundeetan, EAJren zerrendan bosgarren hautagaia izan zen **Isaac Loiola** elgoibartarra.

❑ Kilometroak 96ko batzordeak antolatu zuen lehen ekintza **Pedro Luis Ormazabal** bergararraren argazki erakusketa izan zen. Otsailaren 8tik 29ra bitartean luzatu zen.



**BAMA** S.L.
ERAIKUNTZAK



ETXEBIZITZA
ETA
PABILIOI INDUSTRIALEN
**PROMOZIOA**

San Inazio,4 - Tel 74 14 99
ELGOIBAR (Gipuzkoa)

*Ametsa*
**KAFETEGIA**
Zorionak eta Urte Berri On!

MEKANIZATUAK
MEKANIZATU HAUNDIAK
153 Potsa kutxatila
Ibaitarte kalea, 2
74 12 97 - 74 06 64
Faxa 74 43 21

# MARTXOA



Hilaren 11n eman zitzaion hasiera **Erreminta Makinaren XIX. Biurtekoari**. 1265 enpresa izan ziren bertan horietatik 20 inguru elgoibartarrak izanik. Enpresek sektorearen etorkizuna itxaropentsu ikusi zuten.

Elgoibarko sorreraren **650. urteurreneko eta Kilometroak** jaiaren ospakizuneko kultur egitarauaren aurkezpena egin zuten: argazki erakusketak, Nazioarteko folklore jaialdia, komiki erotikoaren erakusketa, kafe antzerkia, hankapalu eguna eta abar.





Txankakua zubiaren pareko azken hiru etxeak bota egin zituzten, horien artean **eremintariarena**, toki horretan errotonda eraikitzeko.



■ **1996. urteko aurrekontua 1.105 milioikoa** izatea onartu zen Udal plenoan. HBk oso-osorik baztertu zuen aurrekontuen proiektua baina tripartitoko alderdien botuekin onartu egin zen. "Austeritatea"k markatutako aurrekontua zen Haziendaburuaren esanetan eta 95ekoekin alderatuz, 55 milioi pta. gutxiago gastatzeko asmoa zutela gaineratu zuen.

■ Hilaren 3an izan ziren **Hauteskunde Orokorretan** EAJ nagusitu zen Elgoibarren eta PP Estatuan. 93ko hauteskundeekin konparatuz, Elgoibarren EAJk, PPk eta IUk gora egin zuten. HBk, EAk eta PSEk, berriz, beherantz egin zuten botu kopuruan.

AGIRRE
Haragtegia
Zorionak eta Urte Berri On!
Santa Ana, 7 - Elgoibar - ☎ 74 05 97

VICTORIA IRAEGUI
MASAIA TERAPEUTIKOA ETA DEPORTIBOA
ZORIONAK eta URTE BERRI ON!
Errosario kalea 34, 1 eskuma Tel: 74 18 51

- Kontabilitate
- Lan
- Fiskal
URKIDI AHOLKULARITZA
Kalamua 12 ELGOIBAR
Tel-Fax: 74 18 91
ASEGUROAK

AZALEA edergintza
MARI KARMEN BERECIARTUA
Estetizista · Bisajista · Masajista
GORPUTZ eta AURPEGIRAKO tratamenduetan azken berrikuntzak
Trenbide kalea, 3, behea (estazio parean) - Tel. 74 03 10

# PROTAGONISTAK



■ **Udal Kirol Patronatua** urtarrilean martxan jarri zen. Udalaren baitan dagoen erakunde autonomoa da ekintzen antolakuntza, kontratazio eta instalakuntzen gestioa arintzeko sortua. Aurrekontu propioa dauka eta diru sarrerak ere Patronatuak gestionatzen ditu.

■ Eskubaloi taldeko **senior mutilen taldeak** lehen erregionalera igotzea lortu zuen.

■ **San Migel errekastoan** hasitako obrek behin-behineko geldiketa izan zuten. Arrazoia, obren arduraduna zen Huarte enpresaren arazo ekonomikoak izan zen.

■ Udalak **IMI informatika gela** ixtea erabaki zuen. Batetik, Mekanikak utzitako lokalaren beharra zuelako eta, bestetik, Udalak ezin ziolako aurre egin informatika gelak behar zuen inbertsioari.

■ Elgoibarko Izarrako **Atxutxiamaika Begirale Taldeak** prestatu duen plangintza koordinatu, gainbegiratu eta baloratuko duen Aisialdi Batzordea sortu zen. Baztordea Ikastolako, Herri Eskolako eta Pilar ikastetxeko ordezkariek osatzen dute Atxu-txiamaikako zuzendariarekin batera.




❑ **Zuhaitz Gurrutxaga** Elgoibarko futbolista gazteak Espainiako selekzioarekin partidu bat jokatu zuen Ingalaterran hilaren 9an.

❑ Elgoibarko II. Bolo Txapelketan **San Pedro** nagusitu zen taldeka eta **Inaxio Kortaberria banaka.**

❑ **Maider Martinez** elgoibartarrak ESTE unibertsitateak antolatutako ESME, Junior enpresa ideia orijinalen lehiaketan, 3. saria irabazi zuen piszifaktoria baten antolamenduari buruzko proiektuarekin.

❑ Elgoibarko trikitilari eskolako irakasle diren **Zabale anaiek** Euskadi Irratiak antolatutako Pieza Berrien txapelketan lehen saria irabazi zuten porrusalda atalean.

❑ **Miren Gorrotxategi** gazteak Donostia Hiria piano lehiaketan bigarren saria irabazi zuen eta lehenengoa Gipuzkoar onenari dagokionean.



❑ **Gorka Sanchezek** Sabadellen izan zen Espainiako txapelketan parte hartu zuen. Krosean aritu zen Gorka, nahiz eta gero dominarik ez lortu. Gipuzkoako Atletismo Txapelketan, berriz, 1.000 metroko kadeteen lasterketan urrezko domina lortu zuen.








# APRILA



Martxoaren 31n **Kilometroak-ek antolatutako dantza ikuskizuna** izan zen Euskal Herri osotik etorritako taldeekin. Egun berean aurkeztu zituzten Kilometroak-eko maskotak, Beder eta Sei.

Kilometroak-en batzordeak antolatutako **III. Haur Krosak** gonbidatu bereziak izan zituen: irabazleek Martin Fiz eta Diego Garcíaren eskutik jaso zituzten sariak.





**Aste Santuko Pazko egunean prozesioa** izan zen herriko kaleetan eliz-irudiekin. Azken urteetan galdutako ohitura berreskuratzea izan zen asmoa

**Odol Emaileen elkarteak zilarrezko garaikurra** eman zien herriko 23 gizon-emakumeri 25 bider odola emateagatik.









# PROTAGONISTAK




■ Hilaren 16an Luis M. Ezenarro Osoro apaiz elgoibartarrak idatzitako **"Elgoibar: de las ferrerías a la máquina herramienta"** liburuaren aurkezpena egin zen.

■ Apirilaren 7an ospatu zen **Aberri Eguna** eta Udaletxean ikurrina bakarrik ageri zen, hala onartu baitzen plenoan.

■ **Hamalau ikasle txinarrez** osatutako taldeari ongi-etorria egin zitzaion apirilaren 1ean. MOFTEC, ICEX, AFM eta Eusko Jaurlaritzaren elkarlanari esker IMHra zetorren txinarren hirugarren taldea zen. Ekainaren 29ra arte egon ziren.

■ Apirilaren 25ean Herriko Antzokian izan zen mitin-jaialdi batean HBk **ETAren bake proposamena** aurkeztu zuen.

■ Hilaren 30a eta maiatzaren 4a bitartean **Prebentzio Astea** ospatu zuen Errotatxok. "Bizirik Bizi" lemapean hainbat ekintza antolatu zituzten: hitzaldiak, mahainguruak. manifestazioa...

■ Elgoibarko Izarrak antolatutako **grafologia ikastaroa** benetan arrakastatsua izan zen, guztira 32 lagunek hartu baitzuten parte.

❑ **Zigor Gazkezek** bere lehen diska grabatu zuen. 14 abestiz osatutako diska IZ disketxeak argitaratu zuen. Bob Dylanen antza duela esaten duten elgoibartar gazte honek kitarra eta armonikaz lagun-tzen du ahotsa.



❑ Ibai klubeko **Andoni Atrio, Gorka Garate, Merce Rey, Javier Quintano** eta **Aitor Garate** judokek gerriko beltza lortu zuten Logroñon izan zen txapelketan.




Biak

ileapaindegia

Gabon Zoriontsuak eta Urte Berri On!

San Inazio 4, - Tel. 74 27 25




# MAIATZA






Indurain, Zulle, Rominger eta beste pertsonai ezagun asko ikusteko aukera izan zen hilaren 22an **Euskal Bizikleta**ren etapa baten amaiera eta hurrengoaren hasiera Elgoibarren izan ziren.

Maiatzaren 13tik 19ra bitartean Aste Antimilitarista antolatu zuen Elgoibarko Talde Antimilitaristak, kode penal berriaren aurkako jarrera plazaratu nahian. **Intsumituek "hotz-greba"** egin zuten protesta modura.




**Danobat Kooperatibak omenaldia** egin zien enpresa sortu zuen lagun taldeari, ekitaldian 17 izan zirelarik. Eguzki eta Danobat enpresen batuketatik sortu zen gaur egungo Danobat S. Coop.



**C.D. Elgoibarko Elkarteko nesken futol taldea** txapeldunorde geratu zen Ligan.




Talleres ALBE ▼▼▼
KANPO ETA BARRUEN REKTIFIKATUAK - PLANEATUAK
CRUSHING BIDEZ PERFILEN PLANEATUAK
BROTXATUAK - MAKINARIA KONPONKETA
Trenbide kalea, 21. Tel. 74 32 86. ELGOIBAR (GIPUZKOA)
Gabon Zoriontsuak! eta Urte berri On!



LARRANAGA autoeskola
Nora begira zaude? Zatoz lehenbailehen karneta ateratzera!!
Gazte txartelarekin %10eko BEHERAPENA izena ematean
Santa Ana 11 - ☎ 74 10 11 - ELGOIBAR



■ Deba Beheko Mankomunitateak **pila arruntak jasotzeko kontenedoreak** jarri zituen Elgoibarren.

■ **Gaztetxea bota zutela 5 urte** betetzen zirela eta, hainbat ekintza antolatu zituen Gazte Asanbladak hilaren 10 eta 11n: akanpada, hitzaldi-eztabaida, kontzertua...

■ San Bartolome ikastolako **Dodotis neska taldeak** Gipuzkoako txapela lortu zuten eskubaloian.

■ **Orbela eta Pedruscos taldeak** izan ziren Urasandiko Futbitoko Ligako eta Kopako txapeldunak.

■ EAEko Mendi Nekazaritzako Elkarteek, DEBEMENen bidez eta **NOW programa**ren barruan, emakumea lan munduan sartzeko baserriko emakumeei zuzendutako ikastaroa antolatu zuen Nekazalturismo enpresak sortzeko.

■ Maiatzaren 6tik 17ra **Lanbide Heziketari buruzko Jardunaldi Europarrak** izan ziren Herri Institutuan. Jardunaldietan Holanda, Alemania, Grezia eta Elgoibarko Lanbide Heziketako ikastetxeek hartu zuten parte.

■ Galiza Etxeak **Semana Das Letras Galegas** ospatu zuen. Jaigunea Urasandin kokatu zen, gastronomia, folklorea eta galiziar kulturaren bilgune bihurtu zelarik.

# PROTAGONISTAK



❑ Liburutegiak antolatutako II. Idazlan lehiaketan **Uxue Alberdi** nagusitu zen eta 2. saria **Josu Duranentzat** izan zen. Marrazki lehiaketan **Iria Vicente**k eskuratu zuen lehen postua eta **Unai Arce** izan zen bigarren.



❑ Hilaren 19an iaz hil zen **Kandido Txurruka aizkolariari omenaldia** egin zitzaion Kalamua elkarteak, Gipuzkoako Herri Kirolen Federazioak eta DEBEMENek antolatuta eta Kilometroen batzordeak eta Udaletxeko 650. urteurreneko batzordeak lagunduta. Jaialdian 18 aizkolarik hartu zuen parte.



❑ Ikastolako BBBko 1. mailako **Iker Zuriarrain, Jon Zubiaurre, Gonzalo Salas** eta **Ander Ansuategik** ONCE elkarteak antolatutako eskolarteko lehiaketan txapeldun izan ziren Gipuzkoa mailan eta 3. Estatu mailan.

❑ La Unión elkarteak antolatutako plater tiraketan **Javier Uzuriaga** izan zen txapeldun, iaz bezala. **Ibai Etxabe**k, berriz, herritarrentzat arrantza txepelketa irabazi zuen.


LOS
TABERNA

Urtea ondo bukatu
eta
Berria hobeto hasi




# EKAINA



Elgoibarko, Eltziegoko, Ondarroako eta Baltierrako **Banden Alardea** izan zen hilaren 9an Kilometroak-ek antolatuta.



Hilaren 29an **Euskal Herriko 80 hankapaluk** hartu zuten parte Elgoibarren Kilometroak 96 ospakizunen barruan.

**Finalista Eguna** eta **Mendi Itzulia** antolatu zituen Morkaiko Mendizale Elkarteak. Finalistaren egunean 100 dominatik gora banatu ziren. Ekitaldian Ribate zena omendu zuten. Mendi Itzulian iazko partehartzea gainditu zen.




**San Juan jaiak** Altzolan eta San Juan gaueko dantza Elgoibarren. Plaza Handian sekulako jendetza bildu zen San Juan suaren inguruan dantza egin zuten Haritz-eko dantzariak ikusteko.



BOUTIQUE DEL PAN

Enpanadak
Enbutidoak
Baserriko ogia
Boileria

Ondo pasa jaiak!!

San Bartolome 6 - Bernardo Ecenarro 1
ELGOIBAR ☎ 74 33 92

talleres ZAILDU S.L.

MAKINARIA KONPONTZEN ESPEZIALISTAK
Mandrinadorean planoekin egindako lanak
Fresadora, Taladroa, Tornoa eta Errektifikadora

Gabon jai zoriontsuak elgoibartar guztioi!

Santa Klara, 40 – Tel 74 07 60 – ELGOIBAR

■ Herri Eskolako 8. mailako ikasleek **herriko zuhaitz ezberdinen azterketa** eta sailkapena egin zuten eta bakoitzari buruzko izen eta ezaugarriekin fitxak bete zituzten zuhaitzetan jarriz.

■ Udal Kirol Patronatuak **udako kirol kanpainaren 6. edizioa**n 14 kirol iharduera ezberdin eskaini zituen nagusientzat eta 7 haurrentzat: tenisa, buzeoa, patinaia, eskalada, aerobic-a, puenting-a, espeleologia...

■ Europar Elkartearen **Now programaren barruan dagoen Violeta** izeneko taldeko partaideak Elgoibarren izan ziren: DEBEMEN, Frantzia, Grezia eta Italiako kideek bultzatzen dute aipatu proiektua.

■ **Elgoibarko Udala EEBBek Cubaren aurka** ezarria duten enbargoaren aurka azaldu zen.

■ **Auto-garbiketa zerbitzua** martxan jarri zuen Udalak hiltegi zaharrean.

■ Euskara Batzordeak Elgoibarko Udalean **euskararen erabilera areagotzeko plan berri bati ekin zion**, zerbitzuz zerbitzu langileen egoera aztertu eta epe motzera helburuak jarriz.

■ Pilar ikastetxeak eta Ikastolak **Guraso Eguna** ospatu zuten egun berean. Bakoitzak bere erara, egun ezinhobea igaro zuten.

# PROTAGONISTAK

❑ **Antonia Gurrutxaga, Jesusa Garaialde eta Antonia Ansola** San Migeleko maistra izandakoak omendu zituzten sanmigeldarren egunean.



❑ Ibai Klubeko **Esther Idiakezek** Euskadiko Eskolarteko Judo txapelketan lehenengo postua eskuratu zuen.





❑ Hilaren 29an **Txomin Zabaleta** elgoibartar gaztea diakono ordenatu zuten Donostiako Artzai Onaren katedralean.



❑ **Unai Villena** 15 urteko elgoibartarrak Urruzuno lehiaketan aipamena jaso zuen poesia alorrean "Bakardadearen itzaletan" lanarekin.

❑ **Ongarri Argazki Taldeak** Estatu mailako argazkigintzan ematen diren sarietarako izendatua izan zen.

❑ **Javier Quintano** eta **Gorka Merino** Leioako Unibertsitateak antolatutako Frontenis Txapelketan irabazleak izan ziren.

Orbea
Kafetegia
Zorionak eta Urte Berri
San Frantzisko 6, Tel: 74 31 17

Bidaietako nahiz etxeko asistentzietarako:
GRUAS PANA
Gabon jai hauetan ere zuekin gaude. Zorionak eta Urte Berri On!

Tel. (908) 77 06 23 - 74 38 39

# UZTAILA



Uztailaren 10ean **San Fermin Txiki** eguna ospatu zuten herriko haurrek **Atxutxiamaika** Begirale taldekoekin. Horretarako, txupinazoaz gain, ponyak eta zezentxoak izan zituzten.

Uztailaren 20an izan zen **Nazioarteko Folklore Jaialdian,** Errumania eta Taiwan-eko dantza taldeek hartu zuten parte Elgoibarko Haritz Dantzari Taldearekin batera.





Sallobenteko auzotarrek, DEBEMENek, Udalak, Morkaikok eta Elgoibarko Izarrak **Sargoateko erromeria** berreskuratu zuten. Duela 30 urte desagertu zen erromeriak ospe handia izan zuen garai batean. Uztailaren 25ean izan zen jaia.

Udala eta Ongarri Zine Kluba datozen lau urteotan **aire libreko zinea** eta **zine kluba** gestionatzeko akordio batera iritsi ziren. Urteko 1.600.000 pta.ko dirulaguntza emango dio legealdi honetan Udalak Ongarriri.




TABERNA

Lci wpctvgmq

clctlgvctcmq rgmw

crtqrquc

Egaberri On!

San Roke auzoa 5. ☎ 74 25 95



• Eramateko

OILASKO ERREAK

• Hobe aurrez

eskatuz gero

BAROLA



Gabon Zoriontsuak!

Olaso industrialdea

Tel. 74 31 04

20870 ELGOIBAR



**Elustondo, Idoeta, Gasteain eta Arregi** izan ziren Lagunak Pilota Eskolak urtero antolatzen duen eskuzko txapelketaren irabazleak. Aurtengoa 6. edizioa izan da.

■ Udal Kirol Patronatuak emandako datuen arabera, **260 lagun** aritu ziren **udako kirol kanpainan**. 205 haur eta 58 nagusi.

■ **Mintxetako II. Futbol Txapelketako finalerdietan** eta **finaletan** ez zen Elgoibarko talderik izan. Txapelketa Debako talde batek irabazi zuen.

# PROTAGONISTAK

❑ Gipuzkoako Futbol Federazioak denboraldiko jokalari onenaren saria **Josu Ibarra** elgoibartar gazteari eman zion jubenilen mailan.



❑ **Lore Agirreazaldegi**k eskuratu zuen maila territorialean nabarmentzen den eskubaloiko jokalari onenaren saria.



❑ **J. Ramon Zabala**, 26 urteko elgoibartarra, aukeratu zuten C.D.ko presidente berria.



❑ **Leire Solupe**, jaiotzez elgoibartarra baina gaur egun Arrasaten bizi denak irabazi zuen 1996ko San Bartolome jaietako kartel lehiaketa.



❑ Errealak **Zuhaitz Gurrutxaga** elgoibartarra fitxatu zuen datorren denboraldian jokatzeko. 15 urteko gaztea lehen ere infantil mailan egon izan da Errealean.




IRIONDO Taberna
Jai zoriontsuak!
Pedro Muguruza 2. Elgoibar

Richi
Zorionak eta ondo pasa Gabonak!
ILEAPAINDEGIA ▪ DEPILAZIOA ▪ MASAIA
ILERAKO TRATAMENDUETAN ESPEZIALISTAK:
Koipea ▪ Kaspa ▪ Erorketa
Errosario 6 - 1. Tel. 74 30 11. ELGOIBAR

XABIER
ILEAPAINDEGIA
Eskatu eguna eta ordua
Gabon Jai
San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

PINTXO HOTZAK BEROAK ETA KAZUELATXOAK
ALDAPA TABERNA
Ondo Pasa Gabon Jaiak!
Santa Klara -22
☎ 74 26 32

# IRAILA



Irailaren 10ean egin zuten **Kilometroak 96ko diskaren aurkezpena**. "Elgoibarko Musika" izenburupean, herriko musika talde guztiek hartu zuten parte.



**Altzolako bainuetxeak 150. urteurrena** bete du aurten, 1846an eraiki baitzen.

Hilaren 24an **Haizea** emakume taldeak aurkezpena egin zuen herritarren aurrean. Taldearen helburua, emakumeek gizartean aktiboki partehartzea da eta horretarako hainbat ikastaro eta ekintza antolatuko dituzte.



■ **San Bartolome jaietan izandako istiluetan** Jose Mari Castañares eta beste zenbait pertsona erreduraz zaurituak izan ziren. Irailean, istiluak salatzen zituen manifestua kaleratu zuen Elgoibarko Udalak herritarrek sina zezaten.

■ 14 ikasle, itzultzaile bat eta koordinatzaile batez osatutako **txinar taldea** irailaren 13an iritsi zen Elgoibarrera. IMHra etorri den 4. taldea abenduaren 3ra arte izan zen gure artean.






■ **IMHk goi mailako Enpresa Injinerutza ikasketak** eskaintzen hasi zen 1996-97 ikasturtean. Bordeleko Goi mailako Injinerutza Industrialeko Ikasketa Zentroarekin bateginik jarri ditu martxan IMHk aipatu ikasketak.

■ Orain arte Gestisport enpresak gestionatzen zuen **Olaizaga polikiroldegia** Udal Kirol Patronatua gestionatzen hasi zen. Patronatua sortu zenetik Elgoibarko kirol iharduera eta azpiegitura guztiak erakunde horren baitan biltzea izan da asmoa.

■ Sigma edo Ris-eko kuadrila baten eskutik **Pedrusko taldea** sortu zen duela urte batzuk Urasandiko Futbito Txapelektan jokatzeko asmoz. Aurten, 2. erregionaleko talde bihurtu dira.

■ 17.000 lagun izan dira aurten **aire libreko zinea** ikusten, iaz baino 3.000 pertsona gutxiago eguraldi txarrak eraginda.



■ Irailaren 20an Deba Beheko 17 emakumek **Orientatzaile eta Insertatzaile diploma** jaso zuten. Emakume hauen lana, langabezian daudenei beharrezko orientazioa ematea da, lana topatzen laguntzea.

# PROTAGONISTAK




❑ **Alberto Iriondok** eta **Mari Kruz Intxaustik**, Kilometroak 96 ko abestia izan den "Banoa, banixe" abestiaren musika eta letra egin zuten.




❑ **Andres Alberdi** Institutuko euskara irakasle eta katedradunak euskal gramatikaren inguruko liburua kaleratu zuen. **Pello Arrieta** Institutuko katedradunak, berriz, "Elgoibarko ondare historiko-artistikoa: arkitektura zibila" liburua aurkeztu zuen hilaren 26an.



❑ **Lutxi Arregi** intsumituak epaileak jarritako zigorra oso-osorik bete zuen. 3. graduari esker, 14 hilabetetan zehar Martutenera lo egitera bakarrik joan behar izan zuen.



❑ **Josu Mujika** dantzari eta koreografo elgoibartarra, ETBko Goenkale telesailerako hartu zuten. Josu izeneko eskultore baten papera izango du elgoibartarrak ETBko telesail ospetsuenean.



❑ Gure-Bidek 50. Etxaniz Memorialaren edizioa burutu du aurten. **Ramon Maiztegik**, lasterketaren sortzaileak Gure-Bide, Lagun Taldea, Federazioa eta Udalaren omenaldia jaso zuen.

NOVAK C.B.
MEKANIZATUAK
OLASO INDUSTRIALDEA 37
TEL. 74 37 02 FAXA: 74 39 01
20870 ELGOIBAR GIPUZKOA
Zorionak eta Eguberri On!

PATXI
harategia
Zorionak!
EUSKAL OKELA
CARNE DE VACUNO DE CALIDAD DEL PAIS VASCO
San Bartolome, 30
Tel. 74 35 04
ELGOIBAR



**Urriaren 6an Kilometroak 96** ospatu zen Elgoibarren. Eguraldia benetan eskasa izan zen eta horren eraginez uste baino jende gutxiago hurreratu zen, 55.000 lagun inguru.

**KOKOEk erotismoaren inguruan** antolatu zuen IV. Komiki Jardunaldia. Komiki erakusketa ezezik, zine erotikoa ere izan zen. Erakusketaren inaugurazioan "Drag Queen"ek show berezia antzeztu zuen.





**Ongarri Zine Kluba** martxan jarri zen urriaren 24an. Aurkezpenera Donostiako Zinemaldiko zuzendaria den Diego Galán gonbidatu zuten.

NOW izeneko Formazio eta Enplegu proiektu europarraren barruan, **Greziako Pella herrialdeko 7 ordezkari** Elgoibarren izan ziren hilaren 27an.




IPINTZA
Pinturak
DEKORATZAILEA
- Pintura eta paperen salmenta
- Moketak eta sintasolak jartzen ditugu
- Zoru eta hormen apaindurak
- kortinak saldu eta ipini
- kortinen erakusketa Errosario kaleko 7an

Zorionak! Foruen Plaza 4 ☎ 74 04 40

DEBAPE
INPRIMATEGIA
komunikazio grafikoa
- DISEINU GRAFIKOA
- OFFSET LITOGRAFIA
- FOTOKONPOSIZIOA
- PUBLIZITATE DISEINUA
- ERA GUZTIETAKO IRAGARKI KOMERTZIALAK
- INPRESIO DIGITALA

Zorionak eta Urte Berri

Olaso industrialdea, 27 - ELGOIBAR
• Tel.: 74 40 58 • Faxa:74 41 78 •

■ Herri Institutuko lau arduradunek, IMHko batek, Deba Beheko formaziorako udal teknikariak eta Bide-Egineko zuzendariak, urriaren 26a eta azaroaren 8a bitartean Alemania eta Holandan izan zen **Heziketarako Europar Kongresuan** parte hartu zuten. Alemaniak, Holandak, Greziak eta Euskal Herriak hartu zuten parte.

■ Elgoibarren **babes ofizialeko 164 etxebizi-tza** eraikitzeko hitzarmena sinatu zuten Gillermo Garate alkateak eta Patxi Ormazabal, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburuak. Etxeak, Ikastola eta Artetxe bitartean eraikiko dira, trenbidearen gaineko aldean.

■ **Olasoko kanposantuan nitxo berriak** eraikitzeko proiektua martxan jarri zuten. Guztira 250 nitxo berri eraikiko dira.

■ Elgoibarko Udalak **presoak Euskalerriratzearen aldeko mozioa** onartu zuen, presoek legez duten eskubidea etxetik ahalik eta gertuen egoteko errespeta dadin eskatuz.

■ **Ezkondu gabe** egon arren elkarrekin bizi diren bikoteek Udaletxeko errolda zibilean izena emateko aukera dute urritik aurrera.

■ **"Eskuz"** eskulan taldea sortu zen al-tzarien birziklaia eta errestaurazioan lan egiteko helburuarekin.

■ **Gemma Monreal**en koadroak hilabete oso batez Segoviako Parador Nazionalean izan ziren ikusgai.




■ 1995.eko Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketetan saritutako lanak biltzen dituen **Laiotz** literatur aldizkariaren 3. zenbakia kaleratu zuen Elgoibarko Izarrak.

# PROTAGONISTAK



❑ **Koldo Lizarralde** elgoibartarrak, Carmelo Urdangarin eta Jose Maria Izeagarekin elkarlanean idatzi duen "Ofícios tradicionales" liburua aurkeztu zuen Donostian.



❑ **Jon Suarez Barrutia** elgoibartarrak Kaixo Mirna izeneko liburua argitaratu zuen. Haur literaturan 50 liburutik gora euskaratu dituen arren, honako hau da Jonen lehen sormen-lana.




❑ **Oihana Tarragual, Leire Iriondo eta Elena Zubiaurre** mendarotarrak ETB1eko Txiskola saioan hartu zuten parte. Mendarotarrak final laurdenetara iristea lortu eta Mallorcara bidaia irabazi zuten.



❑ **Pilar Arriola**k Donostiako marathoia, 42 km. korritu zuen urriaren 13an. 3 ordu eta 52 minutuko denbora egin zuen.

IDAMA
ILEAPAINDEGIA
✖ MISTOA ✖ MAKILAIAK
✖ EMAZTEGAI/SENARGAIENTZAKO ORRAZKERAK
ESTETIKA
✖ DEPILAZIOA HOTZA ETA BEROA ✖ SOLARIUMA
✖ MANIKURAK ✖ AURPEGI GARBIKETAK
Santa Ana 7. ☎ 74 40 26 ELGOIBAR

Truk

San Frantzisko, 27
Tel. 74 26 21

# AZAROA



**Ardanza Lehendakaria** Elgoibarrera etorri zen bisita ofizialean. Kilometroak jaian egoterik izan ez zuenez, Sallobenteko pinturak inauguratzen zirela-eta, gure herria bisitatzeko aprobetxatu zuen. Ondoren, Mendaroko Ikastola, Jubilatuen Egoitza eta Industrialde berria bisitatzen izan zen.

Azaroaren 22an inauguratu zen **Ekain II proiektuaren erakusketa**. Debako Ekain kobetako margoen birproduzioan oinarrituz zirkuitu bat eratuko da Deba Beheko herrietan turismoa erakartzeko asmoz.






**HIESaren Astea**ren barruan hainbat hitzaldi eta bestelako ekitaldi antolatu zituen Errotatxok. Erakusketa izan zen, zinea erebai eta baita Eibar eta Elgoibarko futbolari beteranoen arteko partidua ere.

Hilaren 27an, **Iñaki Jaiok, Mikel Alberdik eta Iñaxio Iriondok gartzelan 12 urte** bete zituzten egunean, 30 herritar Mekanikan bildu ziren presoen eskubideak errespetatzeko eskatzen duen manifestu baten aldeko atxikimendua adierazi eta plataforma bat eratzeko.





..TXIMI, S.A. TAILERRAK..

Tornu, fresadora eta rektifikatu LANAK

OLASO industrialdea behea. Tel. 74 10 43 Faxa: 74 43 35

oizmendi

Tel: 74 00 16

TABERNA

JOSE ANTONIO ileapaindegia

Zorionak eta Urte Berri On!

•Hiesa eta hepatitisaren kontrako tresneriaz hornituruk.

•Tresneria zorrotzekin arreta handiena eskatzea gomendatzen da diogu bezeroari.

•Moda gazte eta klasikoa

•Urte askotako esperientziarekin, hileko arazoak erraz konpontzen ditugu: erorketa, kaspa,...

•"Kerastase" eta OSMOSEE-L´OREAL" ilea zaintzeko tratamenduri egokienak.

ZATOZ GUREGANA !

Errosario 30. Tel. 74 14 92. ELGOIBAR

■ Gipuzkoako Ur Patzuergoak eta Udalak antolatuta, **ur-saneamendu plana**ren erakusketa egin zen Kultur Etxean. Elgoibarko kolektoreak datorren urtean hasiko direla eraikitzen esan zuten ekitaldian eta bestetik, 1998an hasiko direla depuradora eraikitzeko lanak.

■ Elgoibarko hainbat kaletan **OTA ipintzea** aztertzen ari ziren Udalean herrian dauden trafiko arazoak konpontzeko irtenbide bezala.

■ **Festa do Magosto** ospatu zuten Galiza Etxekoek. 300 kilo gaztain eta Galiziako 600 litro Ribeiro ardo banatu ziren Urasandiko Plazan.

■ **Herri Kontuen Euskal Epaitegiak** kaleratutako txosten baten arabera, Elgoibarko Udalaren egoera ekonomikoa “oso delikatua” da. 1994. urteko aurrekontua 1.162 milioikoa zen eta zorra 1.215 milioikoa. Egoera ekonomiko txarra ezezik, kontratazio eta adjudikazio irregularrak ere salatu zituen aipatu epaitegiak.

■ San Bartolome jaietako istiluak salatzeko Udalak kaleratu zuen **manifestua 1.501 pertsonak sinatu zuten**.

■ **“Eman Euskarari Berea”** kanpainaren berri eman zuen EKBk. Helburua euskara eta berreuskalduntze prozesuaren egoera larriaren kontzientzia zabaltzea da.

■ Denbora luzez langabezian dauden pertsonen elkartea, **“Ascodel”,** eratu zen. Elkarte aren bultzatzaileak Deba Beheko langabetuak, eta Elgoibarkoak batez ere, izan dira.

■ **Elgoibarri buruzko bideoa** Kulktur Etxean aurkeztu eta salgai jarri zuten.

# PROTAGONISTAK



❑ **J. M. Fernández Suso**k Karakatera III. Igoeran iaz jarritako errekorra minutu bat eta zazpi segundotan jaitsi zuen. Aurten 29’43” egin zuen Susok.



❑ **Pako Iriondo** 70 urteko elgoibartarra berriz izendatu zuten Euskal Mendizaleen Federazioko presidente. Iriondok 14 urte egingo ditu jarraian erakundearen arduradun bezala.



❑ **Nagore Pérez,** jaiotzez elgoibartarra baina Deban bizi dena, Ohorezko Lehen dama aukeratu zuten Mis Gipuzkoa txapelketan.



❑ **Jasone Osoro**k irabazi zuen Lasarte-Oriako X. Literatur lehiaketa ipuinen kategorian. “Tango” izeneko lanari esker eskuratu zuen Jasonek saria.



❑ **Katalina Ondarre Mugerza**k 100 urte bete zituen azaroaren 25ean.

❑ **Carmen Perea** eta **Gorka Sánchez** korrikalari elgoibartarrek Irunen izan zen krosean irabazi zuten bakoitzak bere kategorian.


Maria Urizar ileapaindegi mistoa

GABON ZORIONTSUAK PASA ITZAZUE!

Errosario 9-1ezk. ☎ 74 44 89 ELGOIBAR

DEBA GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Rosario 34, 1 ezk. Elgoibar / Tel: 74 42 83 Fax: 74 42 53

Muebles el almacen

Gabon Zoriontsuak eta Urte Berri On!



Urasandi, 21 - Tel. 74 29 41 - ELGOIBAR

# ABENDUA



**Jubilatuen Astean 7 bikote omendu zituzten** urrezko ezteiak betetzen zituztelako. Nagusiei eskainitako astean, besteak beste, txokolatada, kontzertuak, bideo omenaldiak eta dantzaldiak ere izan ziren.



**Presoen aldeko akanpada**n 15 kanping-denda eta 25 lagun inguruk hartu zuen parte. Antolatzaileen esanetan, “elgoibartarrak ezezik, Gasteiz eta Bilbotik ere etorri zen jendea”.




■ **BARRENek diseinu berria** estreinatu zuen hilaren 5ean. Azalean hasi eta barruko orrialdeetan jarraituz, irudi berriarekin kaleratu zen lau urte bete dituen astekari hau. Berrikuntzen artean, atal berrien agerpena eta zahar batzuen desagerpena ere badaude.

■ Txankakua Merkatari eta Zerbitzu Elkarteak **larunbat arratsaldeetan dendak irekitzea** erabaki zuen.

■ Elgoibarko Izarrak **loreei buruzko hitzaldia** eta **makilaia ikastaroa** antolatu zituen. Biak oso arrakastatsuak izan ziren.

■ Hilaren 5ean **Deba ibaiaren ildoa bere bidetik irteteko zorian izan zen**. Elgoibarren gainezka egin ez bazuen ere, Mendaron arazoak izan zituzten, ibaian obrak egiten ari diren tokian hain zuzen.

■ **Haizea** emakume taldeak antolatutako Zine Klubaren aurkezpenean Itziar Fernandez elgoibartarra, Emakundeko idazkaria izan zen. “Antonia’s line” pelikula ikusi eta gero, debatea izan zen Itziarrek moderatua.

■ Hilaren 1ean **HIESaren Nazioarteko Eguna** ospatu zen. Herriko balkoi eta leihoetan izara zuriak ikusi ziren zintzilikatuak lazo gorriekin eta eguerdian Errotatxok kontzentrazioa egin zuen elkartasuna eskatzeko.

■ Elgoibarko Udalak **Presoen Jarraipenerako Batzordea** eratzea onartu zuen. Aipatu Batzordean alderdi bakoitzeko ordezkari bana (PPkoa ezin berak ez baitzuen onartu), alkatea eta Senideakeko kideak egongo dira. Helburua, Senideen eskakizunak bideratu eta Udala presoen familiakoei hurbiltzea da.

BETi ARGi. S. L.



SUKALDE TRESNERIA
INSTALAZIO OROKORRAK
OPARI ARTIKULUAK

Zorionak eta Urte Berri On! herritar guztioi

Errosario 6 · Tel. 74 16 44 · ELGOIBAR

MIREN
arraindegia



Santa Ana
74 34 49
ELGOIBAR



Hilaren 7an izan zen **Mendaroko II. Kontzezio Azoka**. Eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, gauza asko egon zen ikusgai eta erosgai eta jende dexente hurreratu zen.



**Errosarioko Amabirjinaren irudiari ongietorri beroa** egin zitzaion abenduaren 7an, errosarioa errezatu, irudia bedeinkatu, prozesioa, aurreskua eta denetik egin zitzaion. Orain hilabete itxuraberritzera eraman zuten irudia Donostiara. Aurrekontuari aurre egin ahal izan zitzaion jendearen artean egindako dirubiltzeari esker.

# PROTAGONISTAK



❑ Nekazaritza ekologikoa lantzen duen Txillarre baserriko **Pello Rubio** elgoibartarrak, 1. saria jaso zuen Eibarko San Andres ferian barazkien alorrean.



❑ **Amets Izagirre** ikasleak, Deba Beheko Mankomunitateak zaborren bilketa selektiboaren kanpainarako maskota aukeratzeko antolatu zuen lehiaketan bigarren saria eskuratu zuen.

■ HBk, EAJ salatu zuen aurreko legealdian **hainbat irregulartasun** egin izanagatik. Besteak beste, Herriko Antzokian kontratazio zuzena egin izana eta Leku-Eder-eko garajeekin gertatutakoa salatu zuten Herri Batasunakoek, auzia plenora eraman eta erantzukizuna eskatuko zutela gaineratuz.

■ Abendu hasieran Elgoibarko Parrokiako Misio eta Gazte taldeek **Mercadeco denda** ireki zuten. Bertan, 3. munduko herrialdeek ekoiztutako produktuak saltzen dira eta ateratako dirua herrialde horietara bidaliko da. Helburua, jendearengan kontzientzia sortzea da




**KEMEN** Belardenda

*Estuasuna, antsietatea, depresioa, lo ezina, tabakismoa, loditasuna, fobiak,... tratatzen laguntzen dugu. Zatoz, ez zara damutuko!*

NATUROPATA - Programazio neurolinguistikoa (Practiticcioner eta Masterra) - MASAJEA - REIKI - Osatze naturalaren USUI sistema

San Bartolome 25 · Tel: **74 40 31** · ELGOIBAR

**OIERKI** IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

☎ (943) 20 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 20 35 15

Bista Eder, 11 (sotanoa) ● **20600 EIBAR**

PINTURAK

*PEDRO PEREZ BERISTAIN*

San Roke, 30 behea. ☎ 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

# BERTSO JAIALDIA




ABENDUAREN 27an

OSTIRALA

22:30etan

HERRIKO ANTZOKIAN

ANTOLATZAILEA:
ELGOIBARKO IZARRA K.E.

LAGUNTZAILEAK:
ELGOIBARKO UDALA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

*40 urte ditu. Duela 12 urte inguru, gaisotasun bat zela-eta bide berrien bila atera zen, gaisotasunaren zergaitia jakin nahian. Ohiko medikuntzak bakarrik nahi zuena ematen ez ziolez, beste esparru batzuk ikertzeari ekin zion. Elikadurarekin hasi eta, poliki-poliki, gauza bat eta beste bat ikasten joan zen: yoga, kontrol mentala, naturopatia, elikadura makrobiotikoa... Gaur egun, hainbat esperientzia eta bizipen besteei igorri nahi dizkio. Besteak beste, Reiki metodoa eta Iridiologia kontsultak ditu bere dendan, Kemenen. Lucía Casquero Programa Neurolinguistikoan Master-Practitioner ere bada, eta horri buruz hitzegin digu gaurkoan.*

# LUCIA CASQUERO

# "Garapen pertsonala da iraultzarik garrantzitsuena"

**– Oreka, osasuna da, ez?**

- Bai. Gizakiak hiru zati ditu: fisikoa, psikiko edo emozionala eta espirituala. Hiruren arteko oreka mantendu behar da.

**– Zer da Programazio Neurolinguistikoa?**

- Pertsonaren esperientzia subjetiboaren ezagutza eta aldaketa ahalbidetzen duen zientzia da. Gure programazioak inguruan gertatzen dena, jarrera determinatzen du. Sistema neurologikoak gure gorputzak nola funtzionatzen duen erregulatzen du eta hizkuntzaren bitartez komunikatzen gara bai besteekin bai eta gure buruarekin ere.

**– Zertarako erabiltzen da?**

- Norberak dituen errekurtsoak atera ahal izateko. Edozein arazori aurre egiten laguntzen du.

**– Nola?**

- Erlajazioaren eta ariketa konkretuen bidez. Lo egin aurretik maila berezi batean sartzen gara, konsziente gara loak hartu behar gaituela eta oso sentsazio ona da. Arnasketaren bidez, maila horretara iristea lortu eta arazoaren araberako ariketak lantzen dira.

**–Erlajazio maila hori lortzea erraza al da?**

- Suposatzen da laguntza bila datorrenak baduela nolabaiteko aurrejarrera. Nik lagundu egiten diet, baina arazoaren irtenbidea eurek beraien barruan bilatu behar dute.

**– Esaterako?**

- Demagun pertsona batek hegazkinean ibiltzeari demaseko beldurra diola. Terapia honen bidez, poliki-poliki, pertsona horren inkonszientean barneratzen gara eta denboran atzera egiten dugu, pertsona horrek hegazkinean ibili behar duen bakoitzean sentitzen duena, ikusten duena ezagutuz, arazoaren jatorria ezagutuz, azken finean. Sintoma horiek sortzen zuten arazoaren ordez, alternatibak sartzen ditu.

**– Ordenagailu bat bezala?**

- Hori da. Gure burua ordenadore antzeko bat da eta urteetan zehar jaso duguna artxibatzen du. Posible da gustatzen ez zaizkigun erreferentziak fitxerotik atera eta horien partez berriak gorde eta guk nahi genukeen bizitza eraikitzea.

**– Zein arazo konpontzen ditu?**

- Trauma eta depresioak, fobiak, tabakismoa, obesitatea... Komunikazioa hobetzen da, nor bere buruarekin duen konfidantza eta seguritatea hobetzen ditu, automotibazioa lantzen du, osasuna eta oreka, mugatzen gaituzten sinismenak kanporatzen ditu...

**– Taldekako saioak al dira?**

- Egin daitezke baina nik banaka lantzen ditut.

**– Eta prozesu luzea al da?**

- Pertsonaren eta kasuaren arabera. Batzuek saio batekin nahikoa dute, beste batzuek denbora gehiago behar dute.

**– Zuri egin al dizu onik?**

- Dudarik gabe. Mundua eboluzionatzen ari dela pentsatu nahi dut eta neretzat, garapen eta iraultzarik garrantzitsuena norberaren barruan gertatzen dena da. Garapen pertsonalerako den edozer oso aberasgarria da eta teknika hau majikoa da, benetan.

**BESTEEK ESANA**

**"Garapen pertsonaleko terapietara hanka puntetan edo bete-betean sar daiteke. Lucía bigarren multzokoa da".** JUAN VEGA, MUSIKA IRAKASLEA





Elgoibarko
EAJ-PNVk

*JAI ZORIONTSUAK*
*opa dizkizue herritar guztioi.*
*Urte Zaharra ondo bukatu eta*
*Berria hobeto hasi.*

EAJ PNV

# ROKE taberna

**Eguneroko menuak, bokatak, kazuelitak, pintxoak...**

Lagunarteko afariak, despedidak, konbiteak... *Aurrez enkargatu!*

ZUK JARRI PREZIOA ETA GUK MENUA

Erretxindi 1 - Tel. 74 37 60 - ELGOIBAR






*Elgoibarko PSE-EEk Gabon jai Zoriontsuak opa dizkizue.*
*Urtea ondo bukatu eta berria hobeto hasi!*

PSE PSOE



**Ane Goikoetxeak** laga digu honako erretratu hau. 1958. urtean aterata-koa omen da, Gabon egunean. Esan digutenez, Pilar ikastetxekoek urteroko ohitura zuten Jaiotzarekin atera eta kalez kale kantuan eta diru eskean ibiltzea.

Jose Luis Arriola aritu da argazkian agertzen direnen izen -abizenak asmatzen. Ezin izan du, ordea, guztiak ezagutu. Halere, hona hemen besteen izen-abizenak. Ezkerretik eta goitik hasita: **Cruz Gurrutxaga (✝), ezezaguna, Jose Luis Arriola, ezezaguna, Ixidro Solupe, Paco Gurrutxaga, Manolo Santos, M. Jesus Jainaga, Rufino Eizagirre, Enrike Barrenetxea, Teodoro San Martin, Josu Konde, Juan frailea "Kaskabarro".**

**Ezezaguna, Federico Armero, Angel Arriaga, Ramón Mujika, Asier Arriola, Andrés Ondartza, Jose Luis Rios, ezezaguna, ezezaguna, Rufino Lariz, Roberto Iriondo, Marcos Arizmendiarrieta, Trasobares, Pedro Bergara, ezezaguna, Regina Osa (✝), ezezaguna, J. Antonio Zubiaurre, Jose Luis Odria, ezezaguna, Jesus Mari Etxaniz, ezezaguna, Pello Arrieta, Patxi Zubiaurre, Jesus M. Etxaniz "Sukuzu", Ramón Zubiaurre, Jesús Astigarraga (✝), Ignacio Arizmendiarrieta (✝), Jose Alberto Gurrutxaga, ezezaguna, ezezaguna eta ezezaguna.**

**Jon Antonio Zulaika, ezezaguna, Jose Agirregomezkorta, Jose M. Arakistain, Jorge Alonso, Luis M. Arakistain, Imanol Solupe** eta **ezezaguna.**



*I. URTEURRENA*

*1995eko abenduaren 24ean, 81 urte zituela, hil zen FAUSTINO BADIOLA SUDUPEren oroimenez, URTEMEZA izango da asteartean, hilak 24, arratsaldeko 7,30etan Maalako elizan. Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*

## KIROL ALBISTEAK

### ● Aizkorrira mendi irteera

Morkaiko Medizale Elkarteak mendi irteera egingo du hilaren 31n Aizkorrira. Aurten Morkaikok ez du autobusik antolatu, hortaz, joateko asmoa duenak Morkaikoren elkartera jo dezake argibide bila.

### ● Eskolarteko monitoreentzako ikastaroak

Eskolarteko kiroletan aritzen diren monitoreentzako ikastaroa antolatu da Kirola Euskaraz programaren barruan. Ikastaroa urtarrilaren 2an eta 3an izango da Bergarako Kutur Etxean. Anatomia, fisiologia, elikadura, eskolarteko kirolaren helburuak, monitorearen funtzioaren garrantzia etab. landuko dira. Deba bailarakoentzako prezioa 500 pta.koa da. Izena emateko Kiroldegira deitu (74 44 15 ).

# Eskolarteko Atletismo lasterketak

Mintxetako Udal Instalazioetan jokatu ziren Eskolarteko Atletismo frogetan, Ana Etxanizek (argazkian, aurrean eskuman) bi garaipen lortu zituen: luzera jauzian bata (4,10 m) eta 150 hesietan. Ikastolakoak lehenak geratu ziren (argazkiko lauak) 4x60 metro erreleboetan eta Nuria Revueltak 80 metrotan irabazi zuen 11,08 segundoko denborarekin. Bestetik, Ana Etxanizek Soraluzeko Memorial Acha lasterketan bere kategorian irabazi egin zuen eta Nuria Revuelta laugarren geratu zen. Angel Quintanak hirugarren postua lortu zuen infantiletan. Benjaminetan, Mikel de Pablo bigarren iritsi zen eta Iker Arrillaga bosgarren. Azkenik, benjamin aurrekoetan, Aitor Arrillaga hirugarren izan zen eta Lander Azpiazu laugarren.





**GUZTIONA, HERRIARENA, ZEUREA DEN**

***ELGOIBARKO HERRI INSTITUTUAK***

*"EGUBERRI ON*
*ETA URTE BERRI ZORIONTSUA OPA DIZUE!*

*Bira etengabean*
*aroen gurpila*
*zirimola horretan*
*zenbat nahaspila!*
*Gure mundu tristean*
*arazoak, mila.*
*Urte zaharra badoa*
*berriaren bila,*
*berri onez gainezka*
*etorri dadila.*





# OLENTZERO 96

**Abenduak 24, asteartea**
**Goizeko 11etan Madalako parkean**

## EGITASMOA:

- Plazaraino joango gara kantu eta kalejira tartekatuz.
- Plaza Handian Olentzerori eskutitzak emango dizkiogu.
- Segidan, Olentzerok goxokiak banatuko dizkigu.

**ANTOLATZAILEA:**
ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea

**LAGUNTZAILEAK:**
ELGOIBARKO UDALA / GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

# LEHIAKETA

## ikus Optikarekin Mugerza Krosa ikustera!

ikus
OPTIKA
OPTIKO-OPTOMETRISTA





**KROSERAKO SARRERA edo KATALEJO HAUEK zureak izan daitezke!!**

**Erantzun behean datozen galderak eta ekarri IKUS optikara (San Bartolome, 10). Ondo erantzuten duzuenon artean astero Mugerza Kroserako bi sarrera eta parte hartzaile guztien artean katalejo batzuk zozketatuko ditugu. Azpimarratu ondo dagoen erantzuna.**

❒ **Zein izan da emazkumezko korrikalarietatik krosa aldi gehiagotan irabazi duena?**
- 1- Marcianne Mukamurenzi
- 2- Belen Azpeitia
- 3- Ana Isabel Alonso

❒ **Lehendaibiziko edizioetan noiz egiten zen krosa?**
- 1- Gabonetan
- 2- Aste Santuan
- 3- San Bartolome jaietan

❒ **Zein urtetan izan ziren etiopiarrak podium-eko maila guztietako garaileak?**
- 1- 1995ean
- 2- 1975ean
- 3- 1964an

**IZEN-ABIZENAK** ........................................

..............................................................

**HELBIDEA** ..............................................

..............................................................

**TELEFONOA** ...........................................

Pasa den asteko irabazleak: Miguel Arriola Irizar eta Mari Angeles Zabala Morillo izan dira.

## Ba al dakizu...

- ✓ Aurtengo krosaren antolakuntzaren aurrekontua 13.000.000 pta.koa dela?
- ✓ Maila ezberdinetan 10 herrialde desberdinetako korrikalariak izan direla irabazle?
- ✓ “Anbolo” loritoa Ginea Ecuador-etik ekarritakoa dela, 1957an jaio zela eta herrialde hartako hizkuntza bere izenak “Kaixo” esatea nahi duela?



Mammo Wolde etiopiarra oso korrikalari estimatua zen Elgoibarren.

## Urtarrilak 5, igandea

## Juan Mugerza Memoriala

# NAZIOARTEKO KROS TXAPELKETA

# Instalazioei ahalik eta probetxu handiena ateratzea da Patronatuaren nahia

***Udal Kirol Patronatuko zuzendaritzak urtebeteko martxari buruzko balorazioa plazaratu du. Urtarrilean eratu zen Patronatua eta Kiroldegiaren gestioa bere gain hartzea izan di eman duen azken urratsa. Ramon Mujika Patronatuko zuzendariaren esanetan, "hemendik aurrera instalazioei ahalik eta etekin handiena ateratzea da gure helburua".***

Elgoibarren kirol instalazioei dagokienean, "Euskal Herrian biztanleria kopurua kontuan hartuz, ekipamendu maila oso altua dela esan daiteke. Inbertsio inportante bat egin da eta horiei etekina ateratzea, gastua ahalik eta txikiena izanik , da gure helburua". Urtebete barru Kiroldegiko zerbitzu guztiei %100ekoa probetxua atera ahal izango zaiola uste du Ramon Mujikak. Gure slogana hauxe izan daiteke: "lanean dedikazioa eta seriotasuna eskainiko dugu, behar diren ordu guztiak sartuz". Erabiltzailearekin hartzen diren konpromezuak betetzen ahaleginduko direla ziurtatu du Ramon Mujikak. "Aerobic-ean adibidez, gehienez 25 laguneko taldeak egongo zirela esan genuen eta gaur egun askoz gehiago daude. Konpromezu hori hartu genuen eta bete egingo dugu, tabernako jangelan gimnasio bat egokituz".



*Kirol ekipamendu ezinhobea dugu Elgoibarren.*

## EMAITZAK

**Futbola**

Durango 1 - Haundi 1
Elgoibar 0 - Eibar 0 (1. erreg.)
Zumaiako 1 - Elgoibar 1 (2. jubenilak)
Elgoibar 4 - Amaroz 0 (Oho. jubenilak)
Urola 1 - Elgoibar 5 (Oho. infantilak)
Zarautz 4 - Pedrusko 1 (2. erreg.)

**Saskibaloia**

Urretxu 69 - Elgoibar 67

**Eskubaloia**

Unceta Elg. 18 - Urnieta 7 (Kad. neskak)
Pneumax Elg. 29 - Arrasate 8 (Kad. mut.)
Pagoaga Elg. 19 - Pulpo 21 (Jub. nesk.)
Urola 30 - Huyndai Elg. 25 (Seniorrak)

**Futbitoa**

Udaberri 8 - Borkodo&Bofino 1
Zazpi 12 - Aurten Bai 2
Karkis 8 - Berrogei Duro 0
Orbela 4 - Kunta Kinte 1

**Areto futbola**

Elgoibar F. S. 2 - Hogar Extremeño 5 (1. maila)
Elgoibar F. S. 4 - Hosfrinor 1 (Autonomikoa)

## AGENDA

**Futbola, Mintxetan**

21, larunbata
8,30 Eibar - Lagun Onak (Oho. kad.)
12,30 Eibartarrak - Aretxabaleta (Jub.)
14,15 Pedrusko - Bergara (2. erreg.)
17,00 Haundi - Getxo
18,45 Elgoibar - Intxaurrondo (1. erreg.)
22, igandea
9,00 Gazteak - Urki (Jubenilak)
10,45 Eibar - Union Txiki (1. kadeteak)
12,30 Elgoibar - Almen (Oho. infantilak)
14,15 Gazteak - Soraluze (2. erreg.)
16,00 Eibar Urko - S. Herrera (Oho. jub.)
17,45 Elgoibar - Urki B (2. jubenilak)
19,30 Eibartarrak - Urki (2. erreg.)

**Saskibaloia, Kiroldegian**

21, larunbata
19,00 Elgoibar - Usurbil

**Futbitoa, Kiroldegian**

22, igandea (Arbitraia: Spartak Pitxote)
9,00 Aldavas - Kosakos
10,00 Sorporesa - Sanrroketarrak
11,00 PSK - Maser
12,00 Menisco - Ikus Optika

**Atletismoa, Mintxetan**



**ALEXANDER ACEREDA JUARISTI**

Nahiz betirako geratu zeran
guregandik apartean
zure oroimena bizirik dago
lagun guztien artean

**Zure lagunak**

# Elgoibarko historiari buruzko 18 minutuko

ELGOIBAR 650. URTEURRENA

***650. urteurrenaren barruan antolatu diren ekitaldien barruan, gaur, hilak 20, arratsaldeko 7etan Kultur Etxean emango den diaporama aipatu behar da. Elgoibarko historiaren errepasua egiten da diaporaman. Pello Arrieta historiagileak egin du gidoia eta Ongarri Argazki Taldea arduratu da alde grafikoaz.***

Diaporama hau egiteko artxibo grafiko handia behar izan da. Irudi zahar asko Victoriano eta Julian Azkue eta Indalecio Ojanguren argazkilariek egindakoak dira. Beste batzuek Udal Liburutegiko artxibokoak dira eta badira partikularrek ere utzitakoak, Jose Ignacio Garagarzak eta Luis Ecenarro apaizak hain zuzen. Gaur eguneko Elgoibar azaltzen duten erretratuak Ongarri Argazki taldekoek ateratakoak dira. Diaporama emateko sei proiektore erabiliko dira. Muntaia Diapolan enpresako Pedro González-ek egin du, Aitor Amezagak musika jarri du eta M. Eugenia Etxeberriak ahotsa.

ONGARRI



## Pello Arrieta

**– Elgoibarko Ondare historiko-artistikoa izenburua du diaporamak.** - Bai. Gure herriaren ondarean zehar bidaia bat egingo bagenu bezala dago kontatua. Bertan gure herriko ondare garrantzitsuena jasotzen da.

**– 18 minututan dena jasotzea, zaila.** - Ezinezkoa. Pentsa, testuak 11 minutu baino ez dauka. Gauza asko, baserriak esaterako, kanpoan geratu dira. Oso sinteztizatua dago. Gainera, diaporama batean irudia dagarrantzitsuena; testuak irudia lagundu baino ez du egin behar.

**– Kotakizun kronologikoa egiten duzu.** - Historiaurretik XVIII. menderarte agertzen da eta XIX. mendeko zerbait ere bai.

**– Merinaldea aipatzen da testuan. Zer da?** - Gune urbano bat sortzen ez duen etxe sakabanatuak dira. Hiribildua sortu baino lehenagokoa.

**– Diaporaman zer azaltzen den laburtzerik bazenu...** - Duela 20.000 urte aitzuloetan bizi ziren ehiztariekin hasten da, besteak beste, Mendaroko Agarre eta Aitzbeltz aitzuloetan nola bizi ziren. Karakate eta Kalamuako tumuluak eta Moruko herriska datoz ondoren eta Markinako Merinaldea deitzen dena agertzen da. Olasoko monastegia eta Olasoko jaunak bertan eraiki zuen dorretxea ere aipatzen ditut.1346ko abenduaren 20an Alfonso XI. Erregeak Villamayor de Markina izenarekin Olasoko Monasterioaren inguruan, Elgoibar deitzen zen tokian, harresiz inguratutako herria eraikitzeko baimena eman zuen eta Elgoibarrek izan dituen dorretxe, lanbide, ermita, auzo, komentu, ospital etab. ere.

**– Une historikorik inportanteena?** - Hiribildua sortu zenean. 1346tik aurrera, Elgoibarren bizitza ekonomikoa aldatu egin zen., artisautza, merkataritza eta burdinolen indartzea etab. Honekin batera aldaketa sozial handiak gertatu ziren.

aek

Zorionak eta
Urte Berri On!

Plaza Txikia,3 - ELGOIBAR - TEL. 74 13 32

ITURRI
Taberna

Zorionak eta
Urte Berri On!
Herritar guztioi

Foruen Plaza, 5
Elgoibar

ZUBACOR, S. L.

Ibaitarte kalea, 11
Tel. 74 08 44
Fax 74 26 66

Ondo pasa Gabon Jaiak!

50 Posta kutxa
20870 ELGOIBAR
(Gipuzkoa)




*IU-EBko Udal taldeak*
*1997urte berri zoriontsua*
*opa dizue.*



## PREMIAZ-

**OSASUNA**
Anbulategia:
Larrialdiak . . . . . 461111
Txanda hartzeko 743354
Planning-a . . . . . . 742950
Alkoholiko Anonimoak 740385
D.Y.A (anbulantzia) . . 464622
Gurutze Gorria . . . 743864
Mendaroko Ospitalea. 756264
Odol Emaileak . . . 743936

**GARRAIOAK**
Eusko Trenbideak. 740442
PESA (Eibar). . . . . 102131
Taxi geltokia . . . . . 740898

**UDALA**
Euskara Zerbitzua 744366
Udal Kirol Patronatua 744415
Kultura Zerbitzua . 742158
Mendaroko Udala. 756100
Ongizate zerbitzua 741008
Udaletxea . . . . . . . 741050
Udaltzaingoa . . . . 741394

**BESTELAKOAK**
Caritas . . . . . . . . . 740142
Elgoibarko Izarra . 741626
Kiroldegia . . . . . . 74 4415
Kontsumo Bulegoa 743088
Liburutegia . . . . . . 743525
Musika Eskola . . . 742145
Mintxeta . . . . . . . . 744315
Parrokia . . . . . . . . 740842
Postetxea . . . . . . . 741547

**HIRUGARREN ADINA**
San Lazaro Egoitza 740296
Zaharren Biltokia . 740526

**IKASTETXEAK**
Haur Eskola . . . . 74 21 41
Herri Eskola . . . . 74 08 79
I.M.H. . . . . . . . . . 74 41 32
Institutua. . . . . . . 74 02 67
Ikastola. . . . . . . . 74 44 41
L.H.I.. . . . . . . . . . 74 44 80
Pilar Ikastetxea. . 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**
BARREN. . . . . . . 74 41 12
El Diario Vasco . 74 40 73
El Correo Español 74 10 82
Egin . . . . . . . . . . 20 84 21



# AGENDA

## 20 ostirala

**22,15 ZINE KLUBA**
"Dead man"
Antolatzailea: Ongarri

## 21 larunbata

**11,30 ZAZPIKIREN BILERA**
Zazpikiko lokalean

**13,00 KIROL BARREN ETA BARREN SARIAK**
Kultur Etxean

**19,30-22,15 ZINEA**
"En el nombre del hijo"

**20,00 MUSIKESKOLAKOEN KONTZERTUA**
San Bartolome parrokian

## 22 igandea

**12,30 BANDAREN KONTZERTUA**
Herriko Antzokian

**19,30-22,15 ZINEA**
"En el nombre del hijo"

**19,00 PARROKI ABESBATZAREN KONTZERTUA**
San Bartolome parrokian

## 23 astelehena

**10,00 GABONAK 96**
Antolatzailea: Atxutxiamaika B. T.

**19,00 HITZALDIA**
Gaia: Etxeko landareak
Hizlaria: Jakoba Erekondo
Kultur Etxean
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

**22,15 ZINEA**
"En el nombre del hijo"

## 24 asteartea

**11,00 OLENTZERO**
Irteera Madalan
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

**15,30 OLENTZERO**
Irteera: Plaza Handitik
Antolatzailea: Elgoibarko Aministiaren Aldeko Batzordea

**18,45 BANDAREN GABON EGUNEKO KALEJIRA**

## 25 asteazkena

**22,15 ZINEA**
"En el nombre del hijo"

## 26 osteguna

**22,15 ZINE KLUBA**
"Tierra"
Antolatzailea: Ongarri

## 27 ostirala

**11,30 PAILAZOAK**
Takolo, Pirritx eta Porrotx.
Herriko Antzokian

**22,30 BERTSO JAIALDIA**
Andoni Egaña, Jon Sarasua, Xabier Euskitze eta Aitor Mendiluze
Herriko Antzokian
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

## 28 larunbata

**9,00 TRIKITILARIEN KALEJIRA**

**10,00 GABON ZAHAR FERIA** Plaza Handian

**16,30 TRIKITILARIEN KALEJIRA**

**18,00 PLAZARA DANTZARA**
Kiroldegian

**19,30-22,15 ZINEA**
"El profesor chiflado"

## ZINEA



**Zuzendaria: Jerry George**
**Antzezleak: Helen Mirren, Fionnula Flanagan, John Lynch.**

### En el nombre del hijo

Ipar Irlandako itsasaldeko herrixka bateko bi amen bizitzaren kontakizuna da. Kathleen Institutuko irakaslea da eta biolentzia gorrotu duen arren, egun batean, atentatu baten ostean bere semea atxilotzen dute. Gartzelan gose greba luze bati ekingo diote gobernu ingelesari gerrako presoen statusa eskuratzeko eskatzeko. Presoen senitartekoek kale-mobilizaioetan hasiko dira eta gobernua IRArekin hitz egiten hasten da, sekretupean bada ere.

## 29 igandea

**16,30-19,30-22,15**
**ZINEA**
"El profesor chiflado"

## 30 astelehena

**22,15 ZINEA**
"El profesor chiflado"

## 31 asteartea

**9,00 AIZKORRIRA IRTEERA**
Antolatzailea: Morkaiko M. E.

**17,30 ITXAROPENA ABESBATZAREN KONTZERTUA**
Parrokian

**19,00 PARROKI ABESBATZAREN KALEJIRA**

# 1997 URTE BERRI ON!

## 2 osteguna

**22,15 ZINE KLUBA**
"Lisbon story"
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba"

## 3 ostirala

**22,15 ZINE KLUBA**
"Lisbon story"
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

## 5 igandea

**12,00 MUGERZA MEMORIALA**
Mintxetan
Antolatzailea: Egotoki

**18,00 ERREGE KABALGATA**
Irteera Plaza Handitik
Antolatzailea: Katekistak

## 6 astelehena

**11,00 MEZA ERREGEEKIN**
Parrokian

## ● Gabonetako kontzertuak

Bandaren kontzertuaz aparte, hainbat musika saio egongo dira Gabonetan gure herrian. Bihar, hilak 21, Inazio Bereziartua musikeskolakoen saioa izango da iluntzeko 8etan Parrokian: organoa, korda taldea, Hauspo Soinua akordeoi taldea, Gazteen Banda, Txistulariak, dantzariak eta Udal Txistulari taldea. Igandean, bandaren kontzertuaz gain, arratsaldeko 7etan parroki abesbatzak kantaldia eskainiko du elizan Laura Bilbaoren zuzendaritzapean. Azkenik, urteko azken egunean, arratsaldeko 5,30etan ohiko kontzertua emango du Itxaropena abesbatzak parrokian, eta Parroki abesbatzak kaleetan zehar kantatuko du iluntzeko 7etatik aurrera.



**GABONETAKO KUADRILEN TXAPELKETA**

| EGUNA | KIROLA | TOKIA |
|---|---|---|
| Abenduak **23** | Saskibaloia | Kiroldegia |
| | Pala | Ikastola |
| Abenduak **24** | Areto Futbola | Kiroldegia |
| Abenduak **26** | Saskibaloia | Kiroldegia |
| | Krosa (19,00) | Plaza Handia |
| Abenduak **27** | Areto futbola | Kiroldegia |
| | Txirrindularitza (20,00) | Estazio kalea |
| Abenduak **30** | Saskibaloia | Kiroldegia |
| | Areto futbola | Kiroldegia |
| Abenduak **31** | Saskibaloia (finala) | Kiroldegia |
| | Areto futbola (finala) | Kiroldegia |

## ONGARRI zine kluba



**Zuzendaria: Julio Medem. Antzezleak: Carmelo Gómez, Emma Suarez, Karra Elejalde.**

### Tierra

Medem-en hirugarren luzemetraia da. Bertan J. Agirresarobe eibartarra argazkilaritza lanetan aritu da. Ikutu fantastikoak dituen maitasun istorioa kontatzen da, gaixotasun psikiko baten eraginez nortasun bikoitza duen fumigatzaile baten ikuspuntutik, Angel. Gizon honek bi emakumerekin, Angela eta Marirekin harremanak izan ditu. Batekin harreman izpirituala eta bestearekin, karnala.

## TXAN-DAK

### FARMAZIAK

| | Egunez | Gauez |
|---|---|---|
| 20 | Bidasolo | Anduaga |
| 21 | Bidasolo | Escala |
| 22 | Bidasolo | Escala |
| 23 | Yudego | Zabaleta |
| 24 | Yudego | Yudego |
| 25 | Yudego | Yudego |
| 26 | Yudego | Etxeberria |
| 27 | Ormazabal | Bidasolo |
| 28 | Ormazabal | Escala |
| 29 | Ormazabal | Ormazabal |
| 30 | Etxeberria | Etxeberria |
| 31 | Etxeberria | Etxeberria |
| 1 | Etxeberria | Etxeberria |
| 2 | Bidasolo | Bidasolo |
| 3 | Ormazabal | Ormazabal |
| 4 | Bidasolo | Bidasolo |
| 5 | Bidasolo | Bidasolo |
| 6 | Bidasolo | Bidasolo |
| 7 | Etxeberria | Anduaga |
| 8 | Yudego | Zabaleta |
| 9 | Etxeberria | Etxeberria |
| 10 | Bidasolo | Escala |

### OKINDEGIA

22 igandea Fotero
29 igandea Eizagirre
5 igandea Idarraga
6 astelehena Doña Mercedes

## ● Bandaren kontzertua

Udal Musika Bandak kontzertua emango du Herriko Antzokian, igandean, hilak 22, eguerdiko 12,30etan. Obrak hauek joko dituzte: “El Graff Zeppelin”, “El Murcielago”, “Canción india”, “Cantar, reir, bailar”, “A Christmas dance” eta “Adeste Fidelis”. Gabon Egunean, hilak 24, ohitura den bezala Gabon kalejira eskainiko du arratsaldeko 18,45etatik aurrera.



## ● Azken feria, Gabon Zahar feria

Hilaren 28an, zapatua, Gabon Zahar feria izango da. Plaza Handian eta Errosario kalean barazki eta fruitu erakusketa, lehiaketa eta salmenta izango da. Plazan sendabelarren erakusketa Karakate Elkartearen eskutik. Errosario kalean eta Leku-Ederren baserriko produktuen salmenta eta Nafarroa Plazan hegaztien erakusketa. Madalan, artisauek egindako tresnak egongo dira ikusgai eta Aita Agirre Plazan hileroko ganadu feria. Goizeko 10etan Goikorrota Elkarteak antolatzen duen XV. Gazta Lehiaketari hasiera emango zaio. Bitartean Mañukorta, Ziarda eta Meabe bertsolariek jardungo dute. Eguerdiko 13:30etan gazta lehiaketaren sari-banaketa ekitaldiari ekingo zaio. Saltoki onenak ere saritu egingo dira eta goiz osoan zehar bertsolariek jardungo dute.



## ● Gabonak 96

Elgoibarko Izarra Elkarteko Atxutxiamaika Begirale Taldeak antolatzen duen Gabonak 96 egitasmoa astelehenean, hilak 23, hasiko da Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailako haurrentzat. Jolasak, antzerkia, Eibarko parke infantilera irteerak etab. egiteko aukera izango dute haurrek 23, 24, 26, 27, 30, 31 eta urtarrilak 2 eta 3an.

## ● Plazara Dantzara

Gabon Zahar azoka egunean, hilak 28, Plazara Dantzara ikuskizuna taularatuko dute Musikeskolako dantzariek eta Haritz Euskal Dantzari Taldekoek, Trikitilari Eskolak eta Udal txistulari Taldeak lagunduta. Elgoibartarrekin batera Eibarko Kezka eta Debako Gure Kai Euskal Dantzari taldekoak arituko dira. Kiroldegian izan-




## ● Takolo, Pirritx eta Porrotx

Udalak antolatuta, etxeko txikienek aurtengo Gabonak ondo baino hobeto pasatzeko aukera izango dute Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoekin. Saioa goizeko 11etan hasiko da hilaren 27an, ostirala, Herriko Antzokian.

## ● Bertso jaialdia

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak bertso-jaialdia antolatu du hilaren 27rako, ostirala. Bertsotan jardungo dutenak Amdoni Egaña, Xabier Euzkitze, Jon Sarasua eta Aitor Mendiluze izango dira. Gaia jartzeko lana oraingoan Izaskun Elizburu elgoibartarrari egokitu zaio. Bertso-jaialdia Herriko Antzokian izango da gaueko 22,30etatik aurrera.

## ● Loreen hitzaldia

Elgoibarko Izarrak lore eta landareei buruzko bigarren hitzaldia antolatu du hilaren 23an Kultur E-txean. Lehen saioak izan zuen arrakasta ikusita bigarren bat prestatu dute. Jakoba Errekondo izango da hizlaria eta saioa arra-tsaldeko 7etan hasiko da.

## ONGARRI zine kluba



**Zuzendaria: Wim Wenders. Antzezleak: R. Vogler, P. Buchau, T. Salgueiro, Madredeus.**

### Lisbon Story

Lisboari buruzko dokumentala da. Europako Hiriburu kulturala izendatu zutenean, Wenders-ek, hiri horretara dokumental bat egitera doan soinu teknikari europear baten bidez Lisboa ispilu batean isladatuko bailitz irudikatzen du. Umore ikutu handiaz egina dago dokumentala. Musika banda Madredeus taldearena da.



# BaRREN sariak eta kirolari onena 96

**Abenduak 21, larunbata**

**Eguerdiko 1,00ean**

**Kultur Etxean**

Olentzero egunean, BARRENek 4. urtebetzea egingo du. Ospatzeko, BARREN sarien laugarren edizioa eta 1996ko KIROLARI ONENAren aukeraketa antolatu dugu. Epaimahai kualifikatu batek sariak nori egokitu erabaki du. BARRENen egunero lanean gabiltzanok, zuen jarrera paregabea eskertu nahi dugu. BARREN SARIEK astekarian kolaboratzen duzuen guztiok biltzeko aitzakia izan nahi dute.

Kolaboratzaile guztioi eskerrak eman nahi badizkizuegu ere, ezin denoi saria eman. Horregatik urtero antolatzen dugun sariketa honek lagun arteko bilkura izan nahi du izan eta ez zuen arteko lehiarako arrazoi.

LAGUNTZAILEA
CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



**PILOTA** Karmel Leon, 16 urte

● Iruneko eta Zaldibiko txapelketetan finalista. ● Intxaurrondoko eta Deba arroko txapelketetan finalerdietara iritsi zen. ● Herrien arteko txapelketan lau partidu irabazi zituen. ● Gipuzkoako txapelduna eskolarteko txapelketan, kadeteetan. ● Gipuzkoako txapelduna jubeniletan.



**ARETO FUTBOLA** Manu Rey, 30 urte

● Gipuzkoako 1. mailako jokalari onena. ● Elgoibarko bi taldeetako jokalari guztien artean, bigarren golegilerik onena izan da. ● Bere taldea, 1. mailako Gipuzkoako txapeldunordea izan da.



**JUDOA** Esther Idiakez, 13 urte

● Euskadiko eta Gipuzkoako eskolarteko judo txapelduna. ● Urrezko domina Tarnos-eko (Frantzia) Nazioarteko Txapelketan. ● Brontzezko domina Euskadiko Federatuen Txapelketan. ● Gipuzkoako Selekziorako hautatua, 96-04-27. ● Deba bailarako infantilen txapelketan urrezko domina eta zilarrezkoa Legazpikoan, banaka eta taldeka.



**KARATEA** Nicolas Jimenez, 16 urte

● Kumite (borroka) Txapelketako Gipuzkoako txapelduna (96-5-19). ● Kata (teknika) Txapelketako Gipuzkoako txapeldunordea bi aldiz (96-5-19 eta 96-10-11n). ● Kluben arteko txapelketan, Kata txapelduna. (96-6-29).



**MENDIA** Josu Merino, 25 urte

● Euskal Federazio eta Goi Mendi Eskolako monitorea. ● Urtarrilean Patagoniako Cerro Torre mendebal aurpegitik eskalatzeko asmoa dauka. Lortuz gero, bide horretatik egiten duen lehena izango da Estatu espainiarrean.



**EHIZA** Patxi Arriola, 32 urte

● Elgoibarko ehiza txikian txapelduna. ● Euskadiko Ehiza Txapelketan laugarren geratu zen. ● Iazko Espainiako txapelduna izateagatik Espainiako ehiza txikiko finalerdietarako sailkatu da automatikoki. Bertan, hilaren 21ean, Errioxan izango den finalerako sailkatzea lortu du.

**TRIATLOIA** Iñaki Konde, 45 urte



● 2.a Euskadiko Triatloi zirkuitoan. ● 2.a Gasteizko Triatloian ● ROTHeko IRON MANean 342 beteranoren artean 16.a, 11h 47"ko denboraz. ● Euskadiko Triatloi luzeko C kategorian 9h eta 10"ko denbora. ● Postu hauek guztiak A Beteranoetan lortu ditu.

**HERRI KIROLAK** Angel Ibarluzea, 29 urte



● Gipuzkoako Bolo Txapelketan banaka 7.ena izan zen, binaka hirugarrena eta taldeka txapelduna San Migeleko taldearekin. ● Euskadiko txapelketan banakako eta binakako kategorian bigarren geratu zen, eta taldeka lehenengoa. ● 1996ko Gipuzkoako bolaririk onena izendatu dute.

**TXIRRINDULARITZA** Arkaitz Martinez, 16 urte



● Urnietako eta Aretxabaletako txirrindulari lasterketetan lehena izan zen, mendiko saria lortu zuelarik. ● Tolosako Gipuzkoako Txapelketan 3. izan zen. ● Beste lasterketa batzuetan lortutako postuak: Arrasaten 5.a, Oñatin 4.a eta Beasainen 6.a.

**ATLETISMOA** Ana Etxaniz, 11 urte



● Alebinetako lehen urtean, luzera jauzian eta 150 hesietan hirugarrena izan da Gipuzkoako Txapelketan. 60 eta 2.000 metroetan Gipuzkoako Txapelketarako marka egin zuen. ● Hirugarren postua Gipuzkoako Txapelketan taldeka. ● Zarautz eta Iurretako krosetan irabazle eta Hondarribi eta Irunen bigarrena izan da.

**FUTBOLA** Josu Ibarra, 18 urte



● Real Sociedad Bn hasieran ordezko eta gero titular izan da. 8 gol egin ditu. ● Espainiako 18 urtez azpiko selekzioarekin jokatu du Gran Canarias-en bai eta Europar txapelketan ere txapeldunorde izan da. Datorren urtean izango den Malasiako munduko txapelketarako sailkatu da selekzioarekin.

**ESKUBALOIA** Manolo Herrero, 26 urte



● Arrateko Ohorezko B Dibisioan jokatzen ari da titular. ● Denboraldi honetan partidu bakoitzeko 6 gol sartu ditu bataz/beste. ● 14 urte zituenetik ari da jokatzen Arrate taldean.

**SASKIBALOIA** Mikel Artola, 20 urte



● Elgoibarko saskibaloi taldeko saskiratzaile onena aurtengo denboraldian. ● Saskibaloiaren lehen denboraldia izanik, oraindik ez dute txapelketa inportanterik jokatu.

## Salerosketak

♦ ESKALADAKO MATERIALA salgai. 60x1'5 soka eta arnesa. Merke. ☎**74 02 30**

♦ SEAT RITMO bat salgai. Prezio onean. ☎ **19 50 89** Emilia

♦ PUEGEOT ST motorra saltzen dut. 49 cc., gutxi erabilia eta ondo zaindua. ☎ **74 06 33** (Xabier)

♦ OPEL KADET Beauty SS-2217 AK salgai. ☎ **74 15 45** (eguerdian eta gauean)

♦ Kotxesilla bat saltzen dut egoera oso onean eta merkea. ☎ **74 10 42**

♦ Kitarra elektrikoa eta anplia erosiko nituzke, ☎ **74 37 23** (Eguerdian eta gauean)

♦ RENAULT 9 GTL kotxea saltzen dut. Oso egoera onean dago. ☎ **74 36 98**

♦ 5 hilabeteko SETER INGELES arrazako txakurkume eme bat saltzen dut. ☎ **75 61 47**

♦ Golf GTI SS 1260 AH bat saltzen dut. Egoera oso onean dago. ☎ **75 51 90**

♦ SKIAK ETA BOTAK salgai. Dynastar 1,85ko skiak, Tyrolia loturekin. Botak (Nordica) 42-43. Egoera onean. ☎ **74 18 55** (Gauez)

♦ Ford Fiesta batentzako EKIPAIARAKO PARRILA saltzen dut prezio onean. Bai eta Ford Scort baterako gurpileko tapak ere. ☎ **74 27 93**

♦ BUTANOZKO SUKALDE ia berria saltzen dut estrenatu gabeko labe batekin. ☎ **74 10 09**

♦ MOTOR BAT erosiko nuke. ☎ **74 17 87**

♦ Bigarren eskuko BIBOLIN BAT saltzen dut. Oso egoera onean. ☎ **74 23 13**

♦ Errepiderako BIZIKLETA salgai. Merke eta egoera onean. ☎ **74 11 29**

## Partikularrak

♦ Matematika, kontabilitatea, praktika administratiboak, kosteen kontabilitatea eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak eta talde mugatuak. Esperientzia dut. ☎ **74 21 65** Javi

♦ Matematika finantzieroak ematen dituen norbait behar dugu. ☎ **74 13 18**

♦ Partikularrak ematen ditut. Lehen Hezkuntza, DBH, Lehen zikloa eta ingelesa. ☎ **74 28 02**

## Lana

**♦ ESKAERA♦**

♦ Garraiolaria eskaintzen da furgonetarekin. ☎ **989 09 31 86**

♦ Harategi edo urdaitegi batean edo taberna batean pintxoak egiten lan egingo nuke. ☎ **74 11 40** (Irune)

♦ Administrari lanak egingo nituzke, esperientzia daukat. Segituan lanean hasteko prest nago. ☎ **74 39 39** (Puri)

♦ Administrari lanak egingo nituzke. Bai etxeko lanak egin eta umeak zaindu ere. ☎ **74 40 57** (Celsa)

♦ Etxeko lanak egiteko edo nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago. Esprientzia daukat dependienta bezala. ☎ **74 22 78**

♦ Haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. ☎ **74 23 90**

♦ Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. ☎ **74 15 09 / 74 30 30**

♦ Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Esperientzia eta informeak dauzkat. ☎ **74 23 30** (Eva)

♦ Arratsaldeko 2,30etatik gaueko 9etara lan egiteko prest nago haurrak zaindu eta etxeko garbiketak eginez. ☎ **74 30 90**

♦ Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko prest nago goizez. ☎ **74 43 16** Marimar

♦ Etxeko lanak egin edo haurrak zainduko nituzke. Esperientzia daukat. ☎ **74 43 16** Arantxa

♦ Emakume batek pertsona nagusiak zainduko lituzke. ☎ **74 30 30**

**♦ ESKAINTZA♦**

♦ Orbea tabernan astebukaeretan lan egiteko neska bat behar da. Bertara joan edo deitu. ☎ **74 31 17**

♦ Pertsona nagusi bat zaintzeko norbait behar dut. ☎ **75 60 00**

♦ Sukaldari bat behar dut Soraluzeko jatetxe baterako. ☎ **75 10 01** (Javi)

♦ Publizitate eta promozio gaien enpresak komisioz komertzialak behar ditu (egun osoz edo erdiz). ☎ **70 12 33**

## Etxebizitzak

♦ Pisua eta garajea salgai ditut San Inazio kalean. 3 logela, komuna, sukaldea, jangela eta ganbara eder bat. ☎ **909 62 90 74**

♦ Etxe bat saltzen da Soraluzen. ☎ **75 11 44** (Justo)

♦ Elgoibarren edo Eibarren pisua nahi dut alokatzeko. Maria Oliva ☎ **74 16 30** (lanorduetan)

♦ Altzolan egoera onean dagoen buhardilla bat salgai. Prezio ona. ☎ **74 37 41**

## Bestelakoak

♦ **CARITAS**-ek butanozko estufa bat dauka emateko. ☎ **74 15 09 / 74 12 57**

## Garajeak

♦ Garaje bat daukat saltzeko. Marraduna. Pista beltzean. 74 39 19 (Gauez)

♦ Arregitorren garaje itxi bat saltzen da. ☎ **74 12 53**

♦ Garajea salgai Karakolaren alboan, pista beltzean. Merke. ☎ **74 27 73**

## Agurrak

♦ **Iñaki Astiazaran** zoriontzea nahi dut egin duen lan on eta diskretoarengatik Kilometroetako salmenten batzordean.

♦ **Amaia eta Isa**ri zorionak hilaren 23an urteak beteko dituztelako. Muxu handi bat bioi Mirenen partez.

♦ Zorionak nire amama **Maritxuri** hilaren 29an urteak beteko dituelako. Muxu handi bat Javi eta Mirenen partez.

♦ Hilaren 22an urteak beteko dituen **Jesusari** super zorionak 3A mailako neska-mutilen partez.

## Agurrak

♦ Zorionak **Txaro eta José**-ri abenduaren 13an izan zuten neskato zoragarriarengatik (mundura ekarri berri duten Aitana). Familia osoaren partez.



♦ **Adrian Chico**ri zorionak, hil honen 20an 6 urte egin dituelako. Ama, aita, amama eta Oihana ahizparen partez.



♦ **Nagore Diego Perez**-i zorionak abenduaren 19an 6 urte egin dituelako. Guraso eta bere anaia Aitorren partez.



♦ Zorionak **Ivan Morales Mugerza**-ri hilaren 24an 10 urte beteko dituelako. Bere aita Ed eta ama Gurutzek asko maite dutelako. Egun ona igaro dezazula opa dizuegu.



♦ **Asier Cordon**-i zorionak 10 urte bete dituelako asteartean, hilak 17, guraso eta ahizparen partez.



♦ Aupa **Rakel,** gu-txi idatzi badizugu ere, ikusten duzun bezala ez gara zutaz ahaztu. Zure lagunak.



♦ Zorionak **Alberto Fernandez**i hilaren 19an 8 urte bete dituelako. Bere ahizpa Julia eta aita eta amaren partez.

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89

ARRAGUETA
AZTERKETA ZENTROA
ZIURTAGIRI MEDIKUAK
GIDA KARNETAK ETA ARMA BAIMENAK
ORDUTEGIA
· GOIZEZ:
Astelehena eta asteazkena 10,30-12,30
· ARRATSALDEZ:
Astelehenetik ostiralera 4,30-7,30
Arragueta kalea, 2 bis. A (Hazienda ondoan eta ONCE parean) - Tel. 700 700 - EIBAR




JOSE MARI ARANZAMENDI "KATEI"
Edari Banatzailea

GASEOSA PITUSA
INSALUS
eva

Zorionak eta Urte Berri On!
GURELESA
San Miguel
Kristell LAB

SANTA ANA, 41 - ☎ 74 10 41 - 74 11 32


JUARISTI Aroztegia
PROIEKTU eta
ERREFORMAK
LEIHOAK - ATEAK
Zorionak eta Urte Berri On!
Santa Ana, 18 - Tel. 74 29 94 - ELGOIBAR


Dori
URDAITEGIA
Errosario, 29
Tel. 74 11 92
ELGOIBAR
Aparteko produktuak
Jai Zoriontsuak!


iNEKo
sake
KOPERATIBAK
Jai Zorintsuak!
· Animalientzako pentsuak eta bestelako elikagaiak
· Aholkularitza zerbitzua
· Ongarriak, haziak eta ureztatze sistemak
· Baratza eta lorategirako tresnak
ITZIARKO NEKAZARI KOOPERATIBA
Tel. 19 93 30 / 19 93 00 - Faxa: 19 92 79
20879 ITZIAR (Gipuzkoa)
Elgoibarko Nekazal denda
San Frantzisko, 24 - Tel/Faxa: 74 07 62


Gorbea JATETXEA
GORBEA JATETXEAK
Gabon Zoriontsuak eta
Urte Berri On
opa dizue herritar
guztioi!
Santa Ana, 10 - Tel. 74 05 80
ELGOIBAR